

# *KRISTO ITZULI DA, BERE EGIA DAKAR*

## **1. GUTUNA**

Ni **KRISTO**, aukera honetaz baliatzen naiz, **ZURI** zuzenean hitz egiteko.

**Duela 2000 urte, 'JESUS' izenarekin Palestinan izan nintzenean eman nituen irakaspenen inguruan egin diren interpretazio okerrak zuzentzera etorri naiz.**

Azken 40 urteetan, nire hitzak jasotzen eta horien arabera jokatzeko nahikoa ibili den eta espiritualki sentibera izan den norbaiten bitartez ari dira zabaltzen gutun hauek.

**GUTUN hauek EGIA dira.**

Munduko erlijio-doktrina guztiak gainditzen dituzte.

--GUTUN hauek ASKATU egingo zaituzte.

Norentzat dira? Alde batetik, existentziaren esangura bilatzen ari direnentzat eta beren bizitzaren asmoa bilatzen ari diren guztientzat dira. Bestalde, bizitzaren borrokari aurre egiteko indarra, eta –zailtasunei, gaixotasunei eta etsipenari- eusteko indar bila dabilen jendearentzat dira. Inspirazioa ere badira gutun hauek, eguneroko bizitzan kontzientzia espiritual handiagoa lortu nahi dutenentzat.

Esan liteke **gutunok MAISU EDO MAISTRA IKASTAROA direla**, nik Palestinan, lurrean nengonean, adierazi nuen bideari ekiteko prest daudenentzat.

Gerta liteke hitz hauek egia ote diren zalantzan izatea. Nortasunaren existentzia eta sorburuei dagozkien orriok irakurtzen dituzunean, eta azaltzen ari natzaizun egintzetan sakontzean jabetuko zara egia hau iturri gorenetik soilik irits litekeela.

**GUTUNOK** ulertzeko zailtasunak dituztenek aldiko orrialde bakar bat irakurri behar dute, eta gero meditatatu. Apurka-apurka zure kontzientziak esanahia bereganatuko du, zeren orri hauek zure kontzientzia eta nire kontzientiaren arteko kate-maila baitira.

Zatoz **GUTUN** hauetara giza sineskerak doktrinatu aurreko haurtxo batek duen gogamen librearekin, libre ideietatik, sineskeretatik eta aurreiritzietatik. Ekardazu zure gogamen garbia, bila dabilen gogamena, eta benetako altxorrez aseko dizut, ezagutza gorenaren altxorra emango baitizut; zeinak, zeureganatzean eguneroko zama arinduko baitizu, eta oso argi distiratsua duten larre berdeetarantz gidatuko baitzaitu, eta horrek esan nahi izango du ugaritasuna, alaitasun gorena eta zure behar guztien asebetetzea. Zure giza ulermenetik haratago existitzen den guztiaren bidez, erabat bedeinkatua izatea nola sentitzen den jakitera helduko zara. **GUTUN** hauek munduko jende guztiari bidaltzen ari zaizkio nire maitasunarekin eta gupidarekin. Irakurtzen dituzun bitartean maitasuna eta gupida inguratuko dituzu, eta konturatuko zara existentziarekin dituzun eguneroko borrokek ez zirela inoiz zuretzat izan. Ez duzu min eta larritasunetik igaro beharrik, **EXISTENTZIAREN EGIA** ulertu, zeureganatu eta irmotasunez praktikan jartzen duzunean.

**GUTUN HAUEN ASMOA**

Mundura, oro har, iluminazioa ekartzea da gutun hauen asmoa, gizateria KONTZIENTZIA BERRI BAT eraikitzeke gai izan dadin hurrengo 2000 urteetan zehar. **GUTUN** sorta hau, etorkizuneko gizakiaren garapen espiritualaren hazia da.

**OHARRA:**

**‘Giza kontzientziaren’ bilakaera espiritualak zuen bizitza pertsonal eta orokorrean bilakaera mental eta fisikoa sortarazten du, eta horrek gizateria gero eta ongizate-egoera harmonikoagoetara ekarriko du.**

Hori sinestea zail egiten bazaizu, hausnartu azken 2000 urteak, eta begiratu zer lortu den jendearekin aurrez aurre hitz egin nuenetik. **Anaia-arrebarteko maitasunerantzko** mailaz mailako joera egon da, zeina juduei sarritan erakutsi bainien.

**Lurrean nenbilenean ez ziren gaur ezagutzen diren moduko giza erakundeak. Handinahia, gutizia eta auto-asetasuna jokabide normaltzat jotzen ziren.**

Anaia-arrebarteko maitasun gutxi zegoen judutarren artean; beren profetek, belaunaldiz belaunaldi, nork bere burua lagun-hurkoa beste maitatzeko aholkatzen zieten arren.

**Gizateriak, anaia-arrebarteko maitasun gaitasuna garatuz joan den bitartean, bizitza atseginagoa eta erosoagoa izan du elkarren arteko kontsiderazioan, kortesian, eta adeitasunean. Bizitza atsegin eta eroso hori argi ikus daiteke ospitaleetako zerbitzugintzan, haur-ongizatea bultzatzen duten elkarteetan, adinekoen zainketan, giza-eskubideen aldeko mugimenduetan, eta giza kondizioa hobetzen aritzen diren beste erakunde askotan. Hauek guztiak, Palestinan nik esandako lehen hitzak kontuan hartu zituzten pertsonen bihotz eta gogamenetan sortu dira; eta hitz horiek dira, jendea anaiarteko maitasunerantz eta herrikideenganako gupidarantz bultzatu zutenak.**

Zaintze espiritual hauek eta anaia-arrebarteko maitasunak bultzada itzela lortu zuten XIX. mendean; pulpituetatik orduan predikatu baitziren nire hitzak zintzotasun sutsu eta eraberritu batez, eta kongregazio bero eta zintzoek onartuak izan baitziren. Jada sermolariak eta kongregazioak hedaturik zeuden mundu osoko kontinente bakoitzean. ‘Sabbata’ atseden eguntzat hartzen zen, eta Kristau jende gehienaren pentsamenduak altxatzen ziren Jainkoaren Ahalmenari so egoteko.

**Betebehar eta zeregin arrunten etenaldi mundialak 24 orduko ‘pentsamendu-kontzientearen’ goratzea ekarri zuen ZERUKO AHALMEN SORTZAILEAREN GANTZ; eta horrek guztiak ‘giza-jainko’ kontzientzia ahaltsua sortu zuen gizakien bizitzak lagunduz eta elkartuz. Gizakien eskaerak Zeruko Ahalmena erakarri zuen giza kontzientzia eta esperientziarantz, eta zuzen zuzenean hazkundera eta hedapena ekarri zituen giza bizitzaren arlo bakoitzean.**

Hala ere, jendeak oraindik ez zekien buruz nola **bideratu Zeruko Ahalmena sormeneko kanal espiritualetarantz, ‘egoaren’ kanaletarantz egin beharrean.** Beraz, ‘kontzientzia kolektiboaren’ hedatzeak, egoaren ahalmenak eraginiko emaitza txarrak ekarri zituen, eta gainera jende inspiratuaren ‘kontzientzia espiritualak’ sortutako emaitza onak.

**OHARRA. HORREGATIK...beren-beregi etorri naiz azaltzera... existentziaren garrantzi handiko gertakari bat. Arren, kontuz irakurri! Honako hau da:**

\*Zure **kontzientzia** pertsonala da, zure bizitzara heltzen den guztiaren eta esperientzia pertsonalaren arduradun osoa. Zure **kontzientzia** pertsonala da ona edo gaitza ekarriko dizuna.\*

\*Zure azpi-kontzientziatik aurreko bizitzako/-etako trauma-emozioen oroitzapenak dakartzazu, irmoki grabatuak nahiz eta ezkutuan izan. Horiek zure egungo kontzientzia asaldatu eta eragin dezakete.\*

\*Gertakariren bat arintzeko egiten duzun otoitz berezi eta sutsuak erantzuna izan dezake, baina epe luzera etekin txikikoa izango da, **baldin eta zure gogamena eta bihotza, aldi oro, MAITASUNAREN Lege Unibertsalen aurka aritzen badira, eta etengabeko kritika-jarrera mentalean bizi bazara.\***

**Existentziako Lege Unibertsalak 'kontzientzia-jarduerekin' SOILIK erlazionatzen dira... eta zehatzak eta zuzenak dira....EZ dira 'Jainkoaren' sariak eta zigorrak.**

**Berriz diot: Ez dira 'JAINKOAREN ZIGORRAK' - 'Kontzientziaren Faktore Kausatiboekin' erlazionatzen dira, eta hauek partikula elektrikoak erakarri eta magnetizatu egiten dituzte, eta horrelaxe elkartu egiten dira, eta forma eta esperientzia solidoen itxura hartzen dute munduaren aurrean.**

**OHARRA.** Batzuetan jendea, sekulako otoitzen bidez, **harremanetan jartzen da ZERUKO ERREALITATEAREKIN**, zeina sortze guztiaren atzean eta barnean baitago. **Berak erantzun egiten du eta Bere jarduera** epe laburrean agertzen da beharrezko hobekuntzarekin bizitza pertsonalean eta nazionallean; eta jendeak ozenki esan dezake: 'Miraria da!'

Baina epe luzera, **-kontzientzia Pertsonala edo Nazionalaren egoera bere esperientzietan berretsiko da, eta lehen bezain eragin negatiboak erreproduzitu dituzte arazoetan eta osasunean.**

Ezin dira aldaketa iraunkorrak egin zuen bizitzetan, zuen kontzientzia aldatzen ez baduzue.

Beraz, jendeak otoitz egin behar du, eta une oro ahalegindu baldintza gabeko **Maitasuna** lortzeko.

**Zeren XX. mendean gizakiaren trebetasun mentalek atzean utzi baitzuten bere garapen espirituala.** Zientzialariek pentsatu zuten bazekitela kreazioaren jatorriak azaltzen eta kasualitatea zela esan zuten. Eraitza zuzen horren ondoren, jendeak moralitatea baztertuz bere apeta edo gutiziei amore eman zien erabat.

**Munduan mehatxu berri bat abian jarri eta bultzatu zuten, zeren 'munduko ego-kontzientzia' moduko forma berri bat sortzen hasi baitziren, berau zuzen-zuzenean ZERUKO BALDINTZAGABEKO MAITASUNAREN IZAERAREN aurkakoa. Giza kontzientziak Zerukoaren eragina oztopatu egin zuen.**

**Oharra.**, Gizaki gutxi batzuen irudi izugarriak -beti gero eta gehiago-, **orain dela mende bat tokian bertan kontrolatuak izango zirenak** zera izatera heldu dira:

### **INFEKZIO MENTAL KUTSAKORRA**

literaturan zinean eta antzerkian

goraipatua, eta munduan zehar zabaldua; sexu, bortizkeria eta maltzurkeria gehiegizkoaren bidez, beren moduko '**Giza Kontzientzia**' osoa sortuz. **INFEKZIO MENTAL** hori, **aurrena**, bizimodu egozentrikoetan agertzen da, eta gailu teknologikoen sorketan ikusten da; -eta horiek zera ekarri dute: desordena larriak osasunean, aldaketa klimatikoak, laborantza-galerak, narriadura ingurugiroan, zenbait izaki biziren desagertzea eta gizaki askoren hilketak.

Infekzio mentala, jokabide asaldagarri eta suntsitzaile bezala manifestatzen da giza nortasunean; eta nabari-nabaria da drogen erabilpenean, ankerkeria eta maltzurkeria nazkagarrietan, mafietan eta sexu gehiegikerietan. Horrela, pentsamendu eta jarduera kaltegarri eta perbertituen gupil zoroa sortu dute ikuskizun eta medioetako handikiek. Asmoa, publiko egozentriko baten interesa erakartzea da.

### **T.B.ko pantaila eta zinea giza jokabidearen Biblia berria izatera heldu dira.**

Joan den mendean giza arrazarentzat ezezagunak ziren tragedia pertsonalak ugaritu egiten dira, --- eta jendea beldurrez dabil kalean zehar. Etxeak harresi handien atzean babesten dira. Familia eta gizarteko arazoak maiz azaltzen dira debateetan, eta horrelaxe irauten du giza miseriaren sagak.

Horixe da **BASAPIZTIA**, zuen lurraldeak indarrez hartzen dituen eta gogamen inozenteak **izugarrikeria-jario gaizto** batez elikatzen dituen.

**\*\*Horrek iraungo du Lurreko jende gehienak nire Ezagutza Kristikoa ezagutu, onartu eta bizi izan arte. Zeren Ezagutza horrek erakutsiko baitizu nola itzuli BIZIAREN benetako BIDERA, benetan nahi duzun bizimodua sor dezazun.\*\***

**Baldintzarik gabeko MAITASUNA naizelako diot EGIA, zeina gogamen espiritual askok somatzen duten, baina arbuatua oraindik espiritualki itsu daudenen aldetik.**

***/// Hitz hauek ez dira esaten mehatxatzeko edo zigortzeko; baizik eta, egunero egunkariak eta telebistek ematen dtuzten esanezineko izugarrikeria guztien iturriaz iratzar zaitezene.///***

**\*\*Jende guztiarengan dudan MAITASUNAK, soilik, giza kontzientzia maila batzuen bidez, jaistera behartu nau giza gaiztakeriaren dimentsiora iristeko, eta gaiztakeria horrek zure gaurko bizitzan dituen ondorioez ohartarazteko.\*\***

### **OHAR GARRANTZITSUA**

G.I.B. birusaren jatorriaz galdetuko diozu zeure buruari, birus horrek eraso egiten dio gizakiaren auto-defentsa sistema preziatuari eta bere sistema immunologikoari, eta baita espeziea ugaltzeko gaitasuna asaldatu ere.

**Birus hori kontrolatu ezean, -ez farmakoen bidez KONTZIENTZIA ESPIRITUALAREN bidez baizik-zuhurgabeak hilko ditu. Iluminatuek hori eta existentziako beste arrisku batzuk ere saihestuko dituzte.**

**ESNA ZAITEZ, JABETU! Zure 'kontzientzia-bulkada sendoak' Bizi bulkadak dira.**

**Bulkada elektromagnetikoak dira, guztiz sortzaileak!**

**Bortizak – erasokorrak – hiltzaileak eta izaera mingarrikoak direnean, KONTZIENTZIA mingarri, bortiz, erasokor, eta hiltzaileko partikula elektrikoak igortzen dituzte; eta horiek birus forma hartzen dute eta airean zabaltzen dira gizaki inozente batetik bestera.**

**Gogamen gaixoan sortu eta elikatzen denak forma hartzen du mundu fisikoan azkenean. Hori ez da 'Jainkoaren' zigorra, elizek irakats dezaketene bezala. **EXISTENTZIAREN GERTAKARI ZIENTIFIKOA DA.****

Beraz, sekulako premia duen gaia da pertsona espiritual guztiak 'haurren' irudipenetatik alde egitea,

**Sortzearen eta Existentiaren EGIA** argi eta garbi sentitzeko.

### **NIRE MEZUA ELIZA quztiei.**

**NI, KRISTO, 'giza nortasunaren' sorburuei buruzko EGIA** argi eta garbi kontatzera etorri naiz. Zehatz-mehatz azalduko dizut zergatik eta nola eman zaion gizakiari auto-borondatea izateko berezko grina, eta auto-asetasuna eta auto-defentsako desio bizia.

Hori ez da bekatua –sortze prozesu naturalen atal bat baizik.

Goitik ez dago 'zigorrik'!

Gizakiak berak erakartzen du zigorra, Ego Ahalmenaren ariketa setatiaren eta kaltegarriaren bidez.

**OHARRA.** Horregatik, giza gogamenak ezagutza zientifiko aurreratuagoak deskubritu eta bereganatzen dituen neurrian eskola zientziako testu-liburuak zaharkitzen diren bezala; 'Kristautasunaren' gaurko moldeari, nire gurutzilketaren inguruko doktrina apokrifoetan oinarrituari, berez itzaltzen utzi behar zaio .

**OHARRA.** Gaurko krisi orokorrak, Nazioarteko Legeen beste porrot bat ekarriz eta etorkizuneko terrorismo global baten oinarriak ezarriz, argi adierazten du munduko inongo erlijioak ez daukala, ez ezagutza egokirik, ez buruzagitza edo lidergo eraginkorrik, gizakiaren ohitura mentalak aldatzen hasteko eta zuzenean Bakera eta Oparotasunera abiarazteko.

**BENETAKO LIDER ESPIRITUALAK** bere kongregazioei irakatsiko die, 'kontzientzian' eraturako 'eskema mental' (jokabide mental) modernoek nola eta zergatik sortu dituzten hondamenak eta izugarrikeriak, denon artean modu ezberdinetan hasi direnak nabarmentzen: hor daude lurrikara eta izurrite mota batzuk, uholdeak, goseteak, gerrak, iraultzak, eta beste tragedia batzuk. Ziur egon zaitezke! Lurrera datorren gaitz bat ere ez da 'hondamendi naturala'. Zure ongizate perfektuaren aurkako edozer 'zure kontzientzian' sortzen da lehenik, eta gero zure esperientzia globalean forma hartzen du. **Hauxe da juduei azaltzen saiatu nintzena lurrean nenbilela, -eta NEGAR EGIN NUEN- haiek barre egin zutenean eta sinesteari uko egin ziotenean. Zoro deitu ninduten.**

Ez utzi elizei huts bera egiten!

Elizak, erritual eta dogmetan oinarriturik, ganorarik gabe ibili direlako; beren apaiz eta artzainek ezin izan dituzte asebate Egiaren bilatzaile sutsuen behar espiritualak, etengabeko bilakaeran direnak. Ondorioz, elizak husten ari dira. **Iraungo badute, elizek alde batera utzi beharko dituzte beren ezberdintasunak eta apaltasunez onartu beharko inspirazioa Lurrera ez datorrela ezinbestez eurek espero duten bezala. Gogoratu behar dute, Ni, Kristo, ez nintzela juduek onartua izan.** Elizek beren gogamenak eta bihotzak zabalik eduki behar dituzte, gogamen eta bihotz horiei senak ematen dien Goragoko Egia jasotzeko, gaur egun atxikitzen dutena jaso beharrean...; eta, **BASAPIZTIARI** giza pentsamendua kontrolatzen utzi dioten sineskera zaharrak abandonatu behar dituzte.

Otoitz egizu zintzoki -zure arima, gogamen eta bihotz guztiarekin-, sineskera zahar eta berriak errepikatu beharrean **benetako iluminazioa** jasotzeko. Esnatu eta onar ezazu igarotako sineskera eta erritual horiek ez dutela bete gizakientzako nire esana, hitz eman nizuenean 'nik egindakoak baino gauza handiagoak' egingo zenituztela zuek. Bitartean, meditazio eta otoitz asko egin ondoren lortu behar duzun benetako iluminazioa heldu arte, irakatsi, erakutsi eta bizi:

**ANAIA-ARREBA ARTEKO MAITASUNA**

arimaren, bihotzaren eta gogamenaren indar osoz,  
minutuz minutu zure eguneroko bizitzan.

Zeren -kontzientzia suntsikor orokorraren indarrak deuseztatzeko, gizateriak ahalegin guztiak egin behar baititu bere hurrengo garapen-aldira azkar igarotzeko.

**GORAGOKO IKUSPEGI BATEN BEHAR URGENTEA**

Modu orokorrean onartu behar da GORAGOKO IKUSPEGI BAT dagoela, eta zuk ahaleginak egin behar dituzu hori eguneroko bizitzan praktikan ipintzen.

**GORAGOKO IKUSPEGI hori lortuz gero soilik askatuko da mundu fisikoa osoko suntsiketa batetik.**

Nahiz norbanakoarentzat nahiz munduarentzat, ezin da egon garapen espiritualik edo hainbeste desio diren gauza horien lorpenik IKUSPEGIA gabe. Une honetantxe bizitzaz duzun pertzepzioa lanarena eta beharrean bizitzearena da. Sineskera horiek modu gaizpidetsuan dira deskribatuak eta indartuak telebistaren bidez. Gero, inoiz nahi ez zenukeen miseria ekarriko dizute.

Beraz, medioen bidez adierazten den tentelkeria horretatik salbatzeko giza kontzientziak goratua izan behar du AZKAR, **basamortuan nik ikusi nuena ikusteko.**

**Maitasunaren Errealitatea** existentzia ororen barnean eta atzean.

**OHARRA.** Egia handi hori nabaritu eta onartua izaten denean, **Maitasunaren Errealitatea** hainbat modutan manifestatzen hasiko da bizidun bakoitzarengan eta inguruan bertan. Ugaritasunaren eta Alaitasunaren esperientziak Ugaritasunaren eta Alaitasunaren kontzientzia indartuko du. **Eta horrelaxe, abian jarriko da espiral espiritual bat, gero eta goragokoa eta miragarriagoa.** 'Izatearen' EGIAZKO izaera osoki ulertzen denean, -gizateria garapen espiritualaren hurrengo mailara igoko da, eta zera ipiniko du abian: esperientzia pertsonala eta giza ahalegin modu berria eta bedeinkatua.

Helburuok lortzeko gizateriak, aurrena, barne-ikusmena eskuratu behar du.

**ZER ETA NOR ZARA?**

Galdera berri eta garrantzitsu bat ari da sartzen jendearen kontzientzian. Nor zara -izatez- munduaren aurrean ematen duzun itxuraren atzean?

Zer behar da norbera **BENETAKOA** izateko?

Galdera hau, 'zeu zarenaren' maila bakoitzean erantzuten da orriotan. **-Nik 'basamortuan' sei astetan zehar konprenitu nuen guztia- arautegizat onartzen baduzu zure egunerokoan; zeu ere, denboraren poderioz, OSOA eta BENETAKOA izatera helduko zara ni OSOA eta BENETAKOA izatera iritsi nintzen bezala sendabide eta irakaskuntza ministerioa hasi aurretik.**

Momentu honetan munduan **OSOA** kontsideratzen den gizabanako gutxi dagoenez, zalantzarik gabe, ni zure gogamenean barneratze behar urgentea dagoela onartuko duzu, pentsatzeko eta sentitzeko modu berri baterantz zuzen zaitzadan. Horrelako kontzientzia-aldaketak harmonian jarriko zaitu **Errealitatearekin**; eta, bizitza eta seguritate baldintza hobek eskuratuko dituzu.

Kontzientziaren barruan berreraikitze-lan hori egiteko; lehenbizi, -eta zuk onartu egin behar duzu- zure gogamenean grabatu behar dut gizakiak ez zeudela oraindik prestatuta Palestinan irakatsi nuen gauza

asko onartzeko.

Esanguratsua da inoiz ez dela jendaurrean zalantzan jarri **zergatik** ez den nire nerabezaroa jasota geratu. Zein izan zen hori ez jasotzeko benetako arrazoia?

**Esanguratsua ere bada, nahiz eta bataiatua izan ondoren basamortuan sei aste igaro, eta esperientzia hartatik MAISU eta SENDATZAILE irten arren, idazle bat ere ez dela ahalegindu, ezta deskribatzen ere, zer gertatu zen benetan bitarte horretan, 'deabruak tentatua' izan nintzenaz, 'basapiztien artean zegoenaz' eta 'aingeruak berarekin zeudenaz' gain. Ez dago, ezta aipamen txikienik ere, basamortuan gertatu zitzaidanaz, eta inon ez da esaten gertatutakoak hiri eta herrixketara itzularaziko ninduela 'Jainkoaren Erresuma Barnean dago!' aldarrikatuz, eta halako aginteaz hitz eginez sinagogetara, non Maisu Judutar agureak harriturik geratuko baitziren.**

Nire dizipuluek aho batez, nire giza egoerarekiko egia isiltzea erabaki zuten, nire 'ustezko Jainkotasunari' eta ministerioari sinesgarritasun handiagoa emateko.

Ebanjelioaren arabera esaten zen 'Jainkoaren Seme Bakarra' izan nintzela. Zergatik nioen nik, orduan, maiz 'Gizonaren Semea' neure burua aipatzen nuenean? Baieztapen hauek bereziki egin nituen, nire 'jainkotasunari' buruzko sineskera zabalduer aurka egiteko, eta jendearen gogamenetan grabatzeko ni euren jatorri fisiko berekoa nintzela. Nik egin ahal nuena beraiek ere egin ahal zutela ulertaraztea izan zen nire asmoa; baina soilik, nire ezagutza izatekotan eta zuzen pentsatzeko eta jokatzeko nik emandako instrukzioak jarraitzekotan.

**Hainbeste mito sortu dira nire lurreko pertsonaz eta nire KONTZIENTZIA ESPIRITUALAZ, ezen baden garaia ahal den gehiena deuseztatzeko, jendeak espirituali eboluzionatzea oztopatzen ari direlako.**

Zuk, erlijio-irakaspenekin doktrinatu izan zaren horrek, ulertzen ahalegindu behar duzu nire bizitza deskribatzean ebanjelistek soilik pertsonalki gogoratu zutena kontatu zutela, eta horrek erabat sendotzen zituen nire naturaz gaineko kontaktak. Ni hil ondorengo hogeita hamar urteetan zehar gutxi gorabehera, beste batzuek nitaz esan zutenetik ere asko sartu zuten.

**Halako denbora tartea eta Egjari buruz halabeharrez gertatu beharreko aldaketak izan ondoren** - nola da posible niri buruzko eta benetan gertatu zenari buruzko 'biografia' sinesgarria idaztea... edo nire hitzei eta 'mirariei' bide eman zieten egiazko pertzepzio espiritualak zuzen azaltzea?

Pertsona bakar batek idatz dezake ikuspegi horretatik - eta hori neu naiz. Beraz, Gutun hauek nire Egia ekarriko dizute, lekuko batek ere egiterik izango ez zuen moduan; ez du axola haiek nire pentsamendua zein ongi uste zuten ulertzen zutela.

(Horregatik, berrogei urtez, nire 'bitartekariaren' gogamena sistematikoki araztua izan da irakaskuntza ortodoxo orotik, eta gure arteko komunikazio-sistema perfektionatua izan da)

**Gutun** hauetan islatutako **Egia** Testamentu Berrian idatzitakoarekin ezberdintzen baldin bada, arrarotzat hartu behar da edo arrazoi horregatik ukatu beharra al dago?

Beraz, pixka baterako kontzientzian jaisten ari naiz, behar den hurbilen, zure kontzientzia mailara duela 2000 urteko nire bizitza eta irakaspenak deskribatzeko.

## **NIRE TOKIA HISTORIAN**

Lehendabizi adierazi beharra daukat Juduen Historian –zeina Erromatar Gobernadorearentzat Josephusek egin eta aurkeztu zuen– nire bizitza eta pertsonaren aipamen laburra egiten zela.

Josephusek idatzi zuen Jesus, Erromatarren Legea eta Ordena eta gobernua kentzeko saio bat egin zuena, zigortua eta gurutzilkatua izan zela.

Eztabaidatu izan da hori, Josephusek jakinarazitako beste Jesus bat izan zitekeela. Baina hori ez da egia. Neu, geroago **KRISTO** bihurtuko nintzen hau, sendatze eta materializatze mirariak egin zituen, izan nintzen matxinatua. Baina ni ez nintzen inongo zalapartaria. Ez nuen jendea xaxatu Erromatarrei aurre egitera, ezta Legea eta Ordena desafiatzera ere.

Matxinoa izan nintzen existitzen ziren Judu-tradizioen aurka; zeren basamortuan sei astez egon ondoren, **handik atera nintzenean –pentsatzeko eta bizitzeko modu hobea ikusi bainuen, eta nire lagun juduei ere ezagutzak helarazten saiatu bainintzen, arrakasta gutxirekin baina.**

Nire jarraitzaileen gainean, iritzi publikoaren presioa handia zela ulertzea garrantzitsua da zuretzat. Judutarrei arima salbatzeko mezu bat ekarri niela eta Mesias, Jainkoaren Semea, nintzela bene-benetan sinesteaz gain, mundukoak ziren izatez, eta munduarekin ahalik eta ondoen erlazionatzen saiatzen ziren. Beraz, nik Judu-sineskeren aurkako sentimenduak nituela ezagutzen zuten arren, ez zeuden pozik Testamentu Zaharra erabat baztertzearekin, horrek lagundu eta elkartu egin baitzituen juduak historian zehar. Dekretu zaharretatik baliotsutzat jotzen zutena gordetzeko asmoa zutelako, ezabatu egin zuten nire ‘pertsonaren’ edozein deskribapen.

**Dizipuluek eta Pablok, nire bizitzatik eta irakaspenetatik gorde nahi zutenetik, ‘sineskera sakratuen’ kontzeptu propioak eraiki zituzten. Herriarentzat, garai hartako eta etorkizuneko Judutar zein Jentilentzat, baliotsutzat ematen zituzten kontzeptuak soilik irakatsi eta sendotu zituzten.**

Hortaz, erabili ahal zutena irazi egin zuten, eta nik ‘Jainkoaren Erresumaren Sekretuak’ deitutako gehiena bertan behera utzi zuten, haiek sekula ez zituztelako ulertu. ‘Jainkoaren’ ‘Aitaren’ hautemate berri bat sortzean ere, ez zitzaien desiragarri iruditu.

**‘Bekatuengatik zigoretik salbatzearen’ judutar-sinesmena gorde ahal izateko - Jesusen ‘persona’ aukeratu zen, zeinak gurutziltzaketaren bidez, ordaindu baitzituen gizakien bekatuak, sakrifizio ‘gorenaren’ bidez. Sineskera hori orduko asmo askorentzat zen baliagarria:** horrek, arrazoi heroikoa eta baliozkoa eman zion nire gurutzeko heriotzari. Jendeari erakutsi zion ni ‘Jainkoaren Semea’ nintzela, eta nire bizitzaren azken era arte misio jakin batean jardun nuela.

Sinesmen hori oso bihotz-altxagarria ere izan zela argi geratu zen Juduen tenplua erromatarrek suntsitu zutenean, eta horrek konbertsio asko ekarri zuen.

Judutar sekta askok –baita Gentilen sekta ugarik ere, ez zuten hil-ondorengo bizitzan sinesten. Beraz, oso kontsolagarria zen Jesukristok heriotza gainditu eta gorputzari eutsi ziola jakitea. Garai hartako giza ideologia askorentzat bizitza ezinezkoa zen gorputzik gabe. Beraz, hil-ondorengo bizitzak, soilik, gorputzaren berpizkundea esan nahi zuen.

Horrek ere nire izena etengabe bizirik iraunarazi zuen jendearen gogoan. Neu izan nintzen ‘figura



historiko' ausarta, gizakiak infernuaren eta kondenazioaren beldur orotik libra zitezen bermatzeko hil zena. 'Nigan' sinesten zuten bitartean, 'gizaki liberatu' gisa ibil zitezkeen.

Ene 'izenak' gaur egun arte iraun duelako soilik etor naiteke orain zugana, zuri **EGIA** ekartzeko, orain dela 2000 urte herriarekin partekatu nahi nuena, alegia.

### **NIRE GAZTE DENBORA eta NIRE ESPERIENTZIAK BASAMORTUAN**

Palestinan jaio nintzen. Ni 'Mesias' nintzelako uste sendoa zeukan amak. Herriak kontrakoa sinesten bazuen ere, ni ez nintzen haur santua.

12 urte nituela, Apaiz Buruek Judutar Erlijioaren prestakuntzan hasteko gai nintzen ala ez erabakitzeko, elkarrizketa batera Tenplura eraman nindutenean, arbuiatu egin ninduten setatiegia izateagatik. Nire amak, etsi-etsirik, berriz etxera eraman ninduen, eta ni hezten ahalegin guztiak egin zituen bere prozedurak markatzen zion santutasunean, une oro. Egiteko hori ia ezinezkoa zen, batez ere ni indibidualista eta bihurria nintzelako. Nire amaren arautegiak gogaitu egiten ninduen eta bere diziplina saiakerek ere bai. Gazte bezala kontrolaezina nintzen – zalapartari hutsa!

Sinesmena eta Judutar tradizioekiko atxikimendu haustezina, ene amarena, arbuiatu egiten nuen, jokabide sasi-santuen orde z barrea nahiago nuen. Uko egin nion errutinara lotuko ninduen lanbide bat ikasteari. Gizarte-klase apalenean, guztiekin salbuespenik gabe, nahastea aukeratu nuen; beraiekin edan nuen, prostitutak ezagutu nituen, eta ongi pasatu nuen, hitz eginez, eztabaidatuz, barreka, eta alferra izanez. Dirurik behar izanez gero, bizpahiru egunetarako mahastietara joaten nintzen edo, jateko, edateko eta desio nuen aisialdirako nahikoa pagatzen zizkidaten lanak egiten nituen.

Jendearekiko ardura sakona nuen nahiz eta gizaki legez akats asko izan; besteak beste, jokabide arlote eta axolagabeak, borondate apetatsua eta erabakitasun egozentrikoa neure ideiak pentsatzeko besteek zer pentsa zezaketen batera axola gabe. **Oso hunkibera nintzen. Zure gaurko moldean, hiperaktiboa, oso hunkibera esango zenuke. Nik bihotz ona, gupidagarria eta enpatikoa nuen. Gaixotasunaren presentziak, nahigabeak, eta pobreziak biziki hunkitzen ninduten. Babesgabeen aldeko sutsua nintzen. 'Jendearena' nintzela esan liteke. Haien ondo-ondoan bizi izan nintzen lagun arteko espirituarekin; beren penak entzun nituen, ulertu nituen eta kezkatzen ninduten.**

Garrantzitsua da nire benetako jatorriak eta nerabe garaiko ezaugarriak ondo ezagutzea, azkenean Kristo izatera zirikatu, sustatu eta bultzatu ninduten pizgarria eta akuilua izan zirelako.

**Gehien gorrotatzen nuena eta jasaten ez nuena zen, inguruan nekusan miseria –gaixotasuna eta pobrezia-**. Sutu egiten nintzen; jendea 'zarpailetan', argal, gose, gaixorik eta elbarririk ikusita oihuka hasten nintzen haserre bizian; hala ere, Judutar buruzagiek edo liderrek krudelki ikaratzuz, zentzurik gabeko lege eta praktika tradizionalekin zamatzen zuten jendea, obeditu ezean Jehovaren zigorrarekin mehatxatuz. Entzun nahi ninduten guztiei aldarrikatu nien herri honek nahikoa jasaten zuela zentzugabeko gozamen-neurri murriztaileen bidez makurrarazia izan gabe ere. Zein zen bizitzeko arrazoa, zoriontsu izateko jaiotzen ez baginen?

Uko egin nion Judutar tradizioen araberrako Jainko 'zuzen' batengan sinesteari. Herriaren aurkako Jehovaren 'epaiketari eta kolerari' buruz profetek ziotezen ohar biblikoek nazka ematen zidaten. Jendea gizatiarra zen, azken batean bere giza izaerak egitera bultzatzen zuena egiten zuen. Bekatari jaio ziren –

zergatik epaitu eta kondenatu sufrimenduan eta pobrezian bizitzera, Hamar Aginduak hausteagatik? Non zegoen halako baieztapenen zentzua?

Nire ustez, Judu-sineskera horrek Jainko ilogiko eta krudela adierazten zuen, eta ez nuen 'BERAREKIN' ezer jakin nahi. Halako Jainkorik existitzen bazen, orduan gizakia betiko miseriara kondenatuta zegoela iruditu zitzaidan. Nik muinoetan, lautadetan, zingiretan eta mendietan aurkitu nituen apaltasunak eta askatasunak nire barne-espirtua freskatu zuten, eta kolera lasaitu egin zidaten, Judutarren Jainkoaren aurka marmarrean ziharduen kolera, alegia. Beraz Judu nagusiek irakatsi nahi izan zidatenetik hitzik ere sinesteari uko egin nion.

Hala ere, 25, 26 urte nituela, nire gogamenean beste galdera bat nagusitu zen. Gero eta gehiagotan paseatzen nintzenean, muinoetan zehar bakarrik, nire bihurrikeria pixkanaka grina batek ordezkatu zuen; hots, sortutakoan zehar inspiratu eta arnasten zuen **HAREN** izaera benetakoa, ulertzea eta jakitea.

Nire bizimodua birpasatu nuen eta ikusi nuen nire ekintzek zer nolako sufrimendua eragin zieten nire amari eta beste pertsona askori.

Nahiz eta nik pertsona ahul eta sufrituenganako halako gupida sentitu, ene izaera bihurriak jokabide lotsagabe eta egoista asko eskainia zion nire familiari. Haienganako maitasun ezkutua nigan sortzen hasi zen orduan; eta halaber ikusi nuen nire aurreko jokabidearen aurka jokabide bihurria erakusten nuela.

Juan Bataiatzaileaz eta berak juduen artean egiten zuen lanaz hitz egin zuten; Jerusalemetik eta guzti, etortzen ziren bere hitzak entzutera. Bataia nitzan bisitatzea erabaki nuen. Jordan ibaira nindoala, biziki alaiturik sentitu nintzen bataiatu eta bizi berri bat hasteko aukeragatik.

Banekien, neurrigabeko hunkiberatasuna izan arren, jaiotzez adimen zorrotzekoa eta eztabaidatzeko aparteko dohain sakonekoa nintzela, zeina apetatsuki eta negatiboki erabili bainuen, jendea neurrigabeko eztabaidetara bultzatuz. Nire talentuak xahutuak nituen bizitza egoista, axolagabea, eta atsegingarria emanez.

Ondorioz, gainerakoen begirunea galdua nuen; neure burua ere ez nuen errespetatzen. Lehenengoz hori jasanezina egin zitzaidan. Etorrizunean nire jatorrizko dohainak hobeto erabili ahal eta behar izango nituela otu zitzaidan. Agian modu hobea aurki nezake, hain gupidagarriak zitzaizkidan pertsona haien zama arintzeko, zarata bakarrik egin beharrean. Ordura arte inorentzat ez nintzen baliagarria izan.

### **NIRE BATAIOA**

Juanek bataia nitzan Jordan ibaiko uretan sartu nintzenean, lasaitu ederra baino ez nuen espero sentitzea; eta behingoz jakitea nire jarrera zintzotzeko urrats sendo bat egingo nuela nik. Auzokoak harritzeko moduko erabakitasun berri bat sentitzea espero nuen, eurenganako jokabide maitagarria eta berria erakutsiz.

**Juanek bataiatu ninduenean, sekula posible izatea pentsatuko ez nuen oso bestelako esperientzia gertatu zen benetan.**

Gorputz barrenetik izugarrizko energia bolada sortzen zela nabaritu nuen. Zur eta lur gelditu nintzen. Uretatik balantzaka irtetean, kontzientzian goratua sentitu nintzen ezohiko moduan. Zorion beroaren jario handi batek estasi maila batera igo ninduen. Liluratuta eta argi bikain batez jabeturik nengoen. Tupust eginez aldendu nintzen ibaitik; ibili eta ibili jakin gabe nora. Horrelaxe segitu nuen, ikusi gabe, eta

basamortuan sartu nintzen.

**MESEDEZ, KONTUAN HARTU HONAKO HAU!: BASAMORTUAN IGARO NITUEN SEI ASTEAK** nire giza kontzientziaren barne-arazte garaia izan zen. Jokabide, sineskera eta aurreiritzi zaharkituak indargabetuak izan ziren.

Sentitu, 'ikusi', jabetu eta ulertu nuen guztia partekatzeko unea heldu da pertsona harkorrekina. (Jendeak Bibliako antzinako 'jainko' bati buruzko irudipenak alde batera utz ditzan, 'Jainko edo Jaungoikoaren' aipamena egitea saihestuko dut hitz hori baztertuz; eta zure gogamena zabaltzeko diseinatutako terminologia bat erabiliko dut 'benetan badena' besarka dezazun lurreko forma, kolore, soinu, emozio eta ulermen ororen gainetik. Meditazioari eta otoitzari eusten diozun neurrian, terminologia honek zentzu handiagoa izango du.)

### **BASAMORTUAN SENTITU NUENA**

Argi distiratsu baten barnean goratua izan nintzen, eta bizitasun sutsuz beterik sentitu nintzen, ahalmen biziz, alegia. Estasi eta alaitasunez beteta nengoen; eta banekien, zalantzarik gabe, **AHALMEN HORI** benetako sortzailea zela, zeinetatik sortutako gauza guztiek haren izatea jasoa baitzuten.

Zorioneko barne harmonia hori, bakea eta gauzatze perfektuaren zirrara, une eder hari ezer gehitu behar ez ziona, Errealitatearen izaera bera zen -Ahalmen Sortzailea-, kreazioari eta existentziari bizia ematen ziona.

**Basamortuan nengoenean 'ikusi', jabetu eta nabaritu nuena.**

Beste hautemate kontzienteko dimentsio baten barnean igoarazia izan nintzen, zeinak bizitza eta existentziarekiko EGIA ikustarazi baitzidan. Argi eta garbi ikusi nuen zer zen erreala eta zer faltsua gizakiaren pentsamenduan. Konturatu nintzen esperimendatzen nuen **Ahalmen Sortzaile hori mugagabea, betierekoa, unibertsa zela eta espazio osoa betetzen zuela zerutik, ozeanoetatik, lurretik eta gauza bizidun guztietatik haratago. BERA AHALMEN MENTALA zela ikusi nuen.**

**Bera GOGAMENAREN AHALMEN SORTZAILEA zen.**

**Ez zegoen punturik, ZERUKO GOGAMENAREN AHALMEN SORTZAILE hori existitzen ez zenik.**

**Giza gogamena ZERUKO GOGAMEN SORTZAILETIK zetorrela jabetu nintzen, baina eguzkiak piztutako kandelatxo bat baino ez dela jakin nuen.**

Batzuetan nire giza ikusmena hain espiritualki goratua izan zen, ezen arroka, lur eta airean barna ikus nezakeen. Horiek, orduan, 'tanto txikien ñirñir distiratsua' ematen zuten soilik.

**Izatez, ezer solidorik ez zela jabetu nintzen.**

Hori horrelaxe izan zitekeela zalantza izandako momentuetan, aldaketak fenomenoan bertan behera gelditu ziren, eta askozaz geroago zera ulertu nuen:

nire pentsamenduek, USTE SENDOAK baldin baziren, aldarazi egin ahal zutela 'tantoen ñirñirra';  
(edo gaur egun zientziak dioena: 'karga elektrikodun partikulak')  
eta beraz, arrokan edo aztertzen ari nintzen  
edozertan itxura-aldaketak eragin zitzaizkiren.

Une horretantxe, USTE SENDOAK edo haustezinezko SINESMENAK inguruan duen eragin indartsua ulertu nuen, agindu bat edo sineskera bat baieztatzean.

Niretzat are harrigarriagoa izan zen gogamena ireki zidan 'kontzientzia kosmikoaren' ulerkuntza; hain zuzen ere, neuk egiaztatutako guztia -benetan- **Zeruko Gogamenaren 'Ahalmen Sortzailea' Bera** zela 'tanto txikien ñirñir distiratsuan' ikusgai.

Eta horretaz gain, giza pentsamenduaren jarduerak sakonki eragin zezakeen ñirñirren **itxura-aldaketa**.

Unibertsoan ezer solidorik ez zela ulertu nuen, ikusgai orok 'kontzientzia maila' ezberdina erakusten zuela, zeinak 'tantoen ñirñirren' osaketa eta itxura zehazten baitzuen.

**Beraz, formaren itxura oro barne-kontzientiaren adierazpena zen.**

**BIZIA eta KONTZIENTZIA gauza bera zirela ulertu nuen.**

**Ez dago esaterik: 'Hau BIZIA da eta hori KONTZIENTZIA da'.**

Kontzientzia Bizia zen eta Bizia Kontzientzia zen, eta biak ziren bien **AHALMEN SORTZAILEA; ZERUKO GOGAMEN UNIBERTSALA** unibertsoaren barnean, atzean eta unibertsoetik haratago.

Jendeak **banakotasunari eta formari** garrantzi handiagoa ematen ziela ulertu nuen. Ezin zuten irudikatu gogamenak edo adimenak inongo modu eraginkorrez operatzen, ez bazen forma indibidualez. Horregatik sortua zuten juduek itzelezko izaki goren baten irudi mentala, gizaki baten ezaugarri positibo eta negatibo guztiak zituena. Eta horrela posible zen profetek sinetsi eta hitz egitea –Jhovaren haserreaz, zigor mehatxuez, gaixotasunez eta plagak iristeaz; ustez, giza desobedientziari erantzuteko. Baina, konturatu nintzenez, irudipen horiek mitoak ziren. Ez ziren.

Sumatu nuen, existentziaren edozein mailatan GOGAMENA -ageriko adimena- zela faktorerik inportanteena sortzeari eta gizakiari berari ere dagokienez. Beraz, Genesisia berridatzi egin behar da: Kreazioa izan baino lehenago –**GOGAMEN UNIBERTSALA existitzen zen – Ahalmen Sortzailea(,)** **sortutakoaren beraren barnean eta atzean.**

Halako argitasunez ikusirik **GOGAMEN UNIBERTSALAREN AHALMEN SORTZAILEA** toki guztietan zela, zeruen amaigabetasunean eta lurreko formetan ere bizirik -inolako zalantzarik gabe-, nire inguruan begiratzera bultzatua izan nintzen eta legarra eta arroka baino ez nuen ikusi. Gero bat batean, lur eder baten irudia agertu zitzaidan, non sor zitezkeen landare, zuhaitz eta zuhaizka mota guztiak hazten baitziren. Hegaztiak ere zuhaitz inguruetan hegaka, eta animaliak belardian bazkatzen zebiltzan.

Halako ikuskizunari so eginez, harriturik, zera ikusi nuen: zuhaitz eta landare bakoitza –baita hegaztiak eta animaliak ere- ehunka entitate ñimiñoen komunitatez osaturik zeuden (zuen zientzialariek zelulak esaten diete), eta etengabe funtzionatzen zuten kooperazio espirtu harmoniatsuan. Entitate bizia eta osoaren barne-sistemaren gai eta organo ezberdinak ekoitziz, eta kanpo-itxura osatuz.

**Jarduera zoragarri hori luzaro begiratu nuen, denborak jada ez zidan batere inporta. Begira**

nengoen bitartean zera galdetu nion neure buruari: 'Nork igarriko zuen -larru, luma eta azal-geruzaren azpian hainbesteko jarduera izango zenik entitateen komunitate txikitxoek baitan; hainbeste espezie ezberdinei bizia, itxura, elikatzea, sendatzea, babesa eta sendotasuna emateko batera lan eginez?'

**Hain buru argiz egindako LANAK arreta eman zidan.**

Beraz, **LANA, Ahalmen Sortzailearen Jardueraren** osagaia zela ulertu nuen, bizidunen sistemen barneko zelula txikienetik gizakia bera den unibertsoko entitaterik aurreratuenaraino. Izaki bizidun ororen sistemen barruan, lan guztia **Zeruko Ahalmen Sortzailearen** agindupean egiten zen sakonean; **zeinetan** baitzeuden sortzearen planak eta asmoak. Egia esan, plan eta asmo horiek kontzientzia-moduak zirela ikusi nuen, eta HITZAK dei genitzake; zeren HITZ bakoitzak '*kontzientzia*' oso *modu berezia esan nahi du eta*.

Hortaz, **Ahalmen Sortzailearen Kontzientzian den** jatorrizko HITZA mundu agerian manifestatzen da. HITZA, eta beraz '**Kontzientziaren Eskema**', **ZERUKO GOGAMEN SORTZAILEAREN** baitan geratzen da, bere burua etengabe manifestatuz.

Orduan, 'ikus' ahal izan nuen unibertsoan zegoen guztia, **UNIBERTSOKO GOGAMENAREN Ahalmen Sortzailean** 'bizi zela, mugitzen zela eta izatea BERTAN zuela'; **ZEINA** mugagabea, betierekoa eta benetako **Errealitate** bakarra baitzen, forma indibidualizatuaren manifestazio guztien atzean.

Gorespena baino ez neukan gogoan, munduan zegoen guztia Gogamenaren Ahalmen Sortzailetik baitzeturten, eta hala ere horren barruan baitzegoen. Liluratu egin nintzen isilpeko jarduera horren aurrean, izaki bizi guztietan gertatzen zena, baita giza gorputzean ere, betidanik eta betiko; eta neure buruari galdetu nion nolatan funtzionatzen zuten buru argiz hain unitate txikiek plan espezifikoek arabera, proposatutako forma akatsik gabe ekoizteko –zuhaitz baten azala, hostoak, loreak, fruituak, intsektuak, hegaztiak, animaliak, eta giza gorputza.

Gero, argiago ikusi nuen '**Ahalmen Sortzailea**', unibertsoko '**jarduera adimendun**' **guztiek zuten Iturri** bera zela.

Gizakiak adimena baldin bazuen, soilik '**Izaki Ooren Iturri Unibertsiletik**' zetorkion.

Gainera, erakutsi zitzaidan **Zeruko Ahalmen Sortzaileak** beti lan egiten zuela eraikitze-printzipio zehatz eta oinarritzko batzuen arabera. Zera ikusarazi zitzaidan:

Gizakiek, munduaren aurrean aurkeztean ezaugarri argiak eta oso 'izaera' zehatza duten bezala, **AHALMEN SORTZAILEAK** ere erabateko 'izaera' zehatza -ezaugarri argiak- daukela, eta horiek argi eta garbi ikus zitezkeela izaki bizidun guztiak, landareak, animaliak, hegaztiak, eta gizakiak eraikiak eta sostengatuak izan ziren moduan.

'Printzipio' eta ezaugarri horiek –sortze prozesuan begi bistakoak- aldaezinezko **LEGE** irmoak zirela 'ikus' nuen, eta existentzia guztia gobernatzen zutela.

**LEGE** horiek hain dira biziaren parte, ezen inoiz ez baitira zalantzan jartzen. Konstanteak eta sendoak dira – baina halako legeak ez lirateke egongo, **Ahalmen Adimendun Sortzailea** unibertsoan zehar manifestatzen arituko ez balitz.

Sortze edo kreazio printzipio horiek, Ahalmen Sortzailearen ezaugarriak, honako hauek dira: (zuen aditz denbora-orainaldira itzuli ditut, 'printzipiook' betikoak direlako.)

**1) 'Ahalmen Sortzailearen Izaera' HAZKUNDEA da.**

Bizia duen oro beti hazten da.

**HAZKUNDEA** ezaugarri unibertuala da, eta existentziako printzipio konstantea.

**2) 'Ahalmen Sortzailearen Izaera' ELIKADURA eta ELIKAGAIA da.**

Elikadura eta elikagaia prozesu normal eta zoragarria dira gorputzen barruan antolatua. Hori begibistakoa da hausnartzen duten guztientzat. Elikadura izaki guztiei ematen zaie beren lehentasunen arabera, eta elikagaia digeritzen da osasun eta ongizatea emateko. Kumeak jaiotzean esnea prest dauka amak bere baitan jaioberriaren zain. Inork ezin du ukatu, hori existentziaren printzipio harrigarria ere badela. Inongo zientziak ezin du azaldu zergatik existitu zen sistemaren barruan ezusteko funtzio hori, espeziearen biziraupena segurtatzen duena. Baliteke funtzioa bere horretan ulertzea, baina ez funtzioaren zergatia eta oinarritzko arrazoia.

**3) 'Ahalmen Sortzailearen Izaera' SENDATZEA da.**

Sendatzea existentziaren berezko ezaugarria da, eta esan liteke 'Hobekuntzako Prozesu Naturala' dela, erosotasun indibiduala bermatzeko dela; baina inork ezin du azaldu zerk bultzatzen duen sendaketaren jarduera.

**4) 'Ahalmen Sortzailearen Izaera' BABESA da.**

Babesa, Ahalmen Sortzailearen ezaugarri integrala da; eta munduan bere jarduera miragarria dela ematen duen guztia babeste aldera zuzendua dago. (Gaur egun, medikuntza liburuek gorputzean diren zenbait babes sistema deskribatzen dituzte; baina basamortuan nengoenean Ahalmen Sortzaile-Adimentsuari atxikitako Babesaren ezaugarria horrelaxe 'ikusi nuen'). Landareak, hegaztiak eta animaliak era inspiratuan behatzeko aurkeztu ahala, ikusi nuen 'babesteko beharra' amultsuki hornitua izan zela gorputzetan, zehaztasun handiz.

**5) 'Babesaren' ezaugarri hori beste ezaugarri dinamiko batekin uztartzen da: BEHARREN ASETASUNA.**

Hori nabaria zen ile, adats, eta lumen hornikuntzan izaki bizidunen larrua babesteko; eta hotzean bero eta beroan aterpe emateko. Zera ikusi nuen: Hatz garrantzitsuen mutur sentikorrek behar bezala babesten zirela atzazala eta apatxekin. Bekainek begiak izerditik babesten zituzten, eta, betazalek eta betileek hautsetik eta minetik babesten zituzten begiak. Konturatu nintzen euliak erakartzen dituzten animaliak azkar uxatzeko behar bezalako buztan motaz hornituak izan zirela.

**Ai!, zer-nolako Maitasun eta ardura zoriontsua eta alaia adierazten zen atributu fisiko txiki horietan, xume eta ondorio urrikoak ematen zutenak; eta hala ere, garrantzi handikoak ziren izaki bizidun guztien konforterako. Luxu fisiko horiek, oinarri fisikoaren diseinuari erantsiak, jakina, ADIMEN baten ekoizpena izan ziren. Eta ADIMEN horren asmoa izan zen sortutakoa eroso eta**

**zoriontsua izatea; hots, -baldin eta gizakiari eta animalari 'luxuzko xehetasun' horiek hornitu ez balitzaizkie- esperimentatuko zuketen larritasunetik libre izatea!**

Funtzio naturalak ere oso modu adimentsu eta erosoan izan ziren diseinatuak, eta esker ona inspiratzen zuten. Dena, hain ongi ordenaturik, bistatik kanpo gordea. Gizateria, bedeinkatua eta zorionekoa zen gero! Hain ongi hornitutako bizitzara jaiotzeagatik! Berriro, gorespina baino ez neukan gogoan, eta igoa izan nintzen urrezko barne-argi baten gainera, liluratuta; -zeren ikusi bainuen, larritasunetik askatzeaz gain, izaki bizidunek adieraziko zutela **Ahalmen Sortzailearen IZAERA** maitagarria eta oparoa. Horregatik, gorputz-adarrak, besoak, eskuak, bernak, oinak, eta hatzak zeuzkaten; mugitu, korrika, jauzi eta dantzatzeko, eta barru-barruko pentsamendu eta sentimenduak adierazi ahal izateko.

Sentitu ere sentitu nuen, gizakiak irrika handia izango balu hegaz egiteko eta hegoak garatzeko, eta aukera hori bihotz-bihotzez sinetsiko balu, azkenean gehigarriren bat garatzen hasiko litzatekeela hegaz egin ahal izateko.

'**Ahalmen Sortzailearen**' **IZAERA** ulertu nuen momentu horretan, **MAITASUNAREN** kontzientzia osoa izatera heldu nintzen. **MAITASUNAK**, **Adimen Unibertsalaren Ahalmen Sortzailearen LANAK** zuzentzen zituen.

**MAITASUN** hori aztertzen niharduen bitartean, konturatu nintzen kreazioan 'amak' bere kumeak elikatu, babestu eta beharrak asetzen dituela, eta sendatzen saiatzen dela; hori da, hain zuzen ere, **MAITASUNAREN** jarduera.

**6) ADIMEN AMULTSUAREN AHALMEN SORTZAILEAREN berezko ezaugarria, sortutakoari forma indibiduala eta 'izatea' eman diona, LANA da.**

**Guretzat, gure baitan, eta gure bitartez funtzionatzen du.**

**Bere funtzionamendua beti, beti, beti MAITASUNAK bultzatzen du.**

Alaitasunez eta harriduraz bete ninduen jakinarazte kosmiko horrek. Mundu zoragarrian bizi gara, gero! Nire iluminazioaren punturik gorena zen, eta baita **IZAKI OROREN ITURRIARI** buruzko **EGIAREN** ene ikuspegi orokorra ere.

'Ikusita' neukan 'guztiz ttipiak ziren entitate' berdinen komunitate batzuek osatzen zuten gorputz fisikoen errealitatea, kooperazio eta harmonia-espíritu batez lan eginez gorputz atalak ekoizteko –haragitik, hezurretik, eta odoletik hasi; eta begietan, eta ilean bukatu arte. Komunitate horien arteko ezberdintasun bakarra, euren helburuek eskatzen duten **lan motan dago**. Zalantzarik gabe, gorputzeko jarduera zehatz eta adimentsu horren guztiaren atzean **ZERUKO BULKADA** zegoen, eta **BERA** gizakiaren jarreraren bai inspirazioa bai oinarria zen jendeak batera lan egiten zuenean helburu planifikatu bat ekoizteko; adimena eta helburua **AHALMEN SORTZAILEARENGANDIK** ateratzen dituzte. Hala ere, **zer ezberdina zen gizakiaren jarrera lurreko eraikuntzan edo beste edozein gizarte-proiektutan jarduten zuenean; zeren -halabeharrez- auzia eta liskarrak izaten baitzen gizakiaren jarreraren ezaugarriak.**

Ulertarazi egin zitzaidan '**Sormen Adimendunaren**' **AHALMEN MUGAGABEA**; **ZEINA** beti eraginkorra

den sortutakoaren baitan; ordena, kooperazioa, harmonia eta eguneroko emankortasuna gordetzeari, - gizakiak inoiz eta inon ezin berdinduak-.

### **7) Ahalmen Sortzailearen berezko ezaugarria BIZIRAUPENA zen.**

Kasu bakoitzean hornikuntzarik zoragarriena egina zen gauza bizidun guztiak haz zitezen, gaixotasun eta lesioetatik osa zitezen; gorputza osasuntsu edukitzeko elikatuak izan zitezen, eta bakoitzak bere espeziea sor zezan, lur honetan biziraupena bermatzeko. Horixe zen gizateria erabat seguru egon zitekeen errealitate bakarra, eta **Beraren** jarduera iraunkorra zen urtez urte. Eguzkia, ilargia eta izarrak; zein bere tokian geratu ziren milurteetan zehar, eta ezaguna zen bakoitzak zuen ibilbidea,

-fenomeno hori guztia plan nagusiaren parte bat zen sortutakoaren biziraupenerako.

Hori horrela bazen, zergatik ezin zitekeen biziraupena egon Ahalmen Sortzaile Adimentsu eta Amultsuaren betikougarrian, unibertsoan sortutako entitate mota guztien baitan ezkutaturik? Beraz, mundu hau, Ahalmen Sortzaile Adimentsu eta Amultsuaren mundu ezkutuetan itzal eta irudi bat baino ez zen, dimentsio honetatik haratagokoa. Kreazioaren osotasunaren Errealitatea, mundu ikusgai honetatik haratago zegoen.

### **8) Adimenduna eta Amultsua den Ahalmen Sortzailearen berezko ezaugarria ERRITMOA zen.**

**Munduan ERRITMO bat ari zela ikusi nuen.**

Dena, loratzea eta bizitza-garapena ematen zuten urtaroen menpe zegoen. Lehendsbizi hazkundera eta gero helduaroa izaten ziren. Helduaroan, uzta izaten zen eta landareen biziraupena bermatzen zuten haziak ekoizten ziren. Gero neguan, pixkanakako gainbeherakada eta atsedenaldira. Baina hazitako ezeri ez zitzaion agortzen uzten. Eguzkiak eta ilargiak ezaugarri horiek adierazten zituzten unibertsoaren barruan. Erritmo hori izaki bizidunen emeen organismoetan ere ikus zitekeen. Beraz, kreazioaren barruan denak bere denboraldi egokia zeukan bere agerpenean eta bere uztan. Ulertzen zen gizakia bera, -hazkunderaren eta arrakastaren- eta -letargoaren eta jarduera ezaren- gorabeheren arabera bizi zela.

### **9) Ahalmen Sortzaile, Adimendun eta Amultsuaren berezko ezaugarriak LEGEA ETA ORDENA ziren.**

Orden konstantea eta ageriko fidagarritasuna kreazioan –gorputz barneko entitate txikiak (zelulak) ere gobernatuz- harrigarria zen, eta edozein giza-ahalegin gaintzen zuen aise.

Beraz, unibertso osoa ari zen LEGE ETA ORDEN perfektuaren sistemapean. Gero eta gorespen espiritual maila altuagoetan konturatu nintzen Ahalmen Sortzaileak erabakitasun adimenduna eta maitasunezko ardura erakutsi zuela izaki bizidun guztientzat.

Jakin nuen bizia ez zela zerbait lainotsua edo amorfoa, baizik eta nire baitan benetan senti nezakeen ahalmen sortzailea eta adimentsua, izatezko egoera bat bezala, hautemate bat, tximista bat, estasia, alaitasuna bezala, eta izugarri goraiapatutako maitasuna bezala. Banekien BAT nintzela BERAREKIN – BERATAZ betea - eta BAT nintzela inguratzen ninduen guztiarekin, eta BAT zeruarekin eta izarrekin. Eta –denetan harrigarriena eta goresgarriena- '**Aita-Ahalmen Sortzaile**' honen '**Izaera**' eta '**Funtzioa**' bera



lan egitea zen alaitasuna, osasuna eta konforta sortzearen, gizakiari ongizatea bermatu ahal izateko; gizakiaren baitan lan egitea barne alaitasuna, osasuna eta konforta emateko; eta gizateriaren bitartez lan egitea gauzatze eta ulerkuntza berriaz inspiratuz.

Sormen goresgarriaren ikuskizun harrigarriak heldu zitzaizkidan gogamenera. Gu 'bat' bihurtuz gero, **'Ahalmen Sortzaile Adimendunaren'** bitartekari araztuak eta tresnak izanik, kontzientzian igo gintezke **'Unibertsoko Ahalmen Sortzailearen'** **'IZAERA'** bera adierazi arte, gure gogamenaren eta bihotzaren bidez. Orduan, 'bizitza lurrean' 'egoera zerutar' bihurtuko litzateke, benetan, eta -betiko- bizi\_egoera batean sartuko ginateke!

Horixe izan behar du hain zuzen ere, pentsatu nuen, kreazioaren atzean den egiazko helburua. Eta pozaren pozez eta alaitasun gozoz heldu zitzaidan horixe izan zela asmoa, zeinaren bidez gizakia garatu baitzen!

Baina gaurko garai honetan ere, gizakiak duen jarrera hain inperfektua izan arren, berarentzat ez dago ezinezkorik etorkizunean; 'Ahalmen Sortzailearekin' bat da-eta, gaiztakeriak egin arren. Eta 'Ahalmen Sortzailea' bere baitan dago bizia, biziraupena, eta behar duen guztia emanez. Ulertze horrek guztiak, estasirik gorenera igoarazi ninduen; nekez eutsi ahal izan nion. Ahalmena barnean hedatzeak, ene gorputza disolbatzea ekarriko zuela sentitu nuen. **ARGIA** irradiatzen nuen eta nire inguruan ikus nezakeen basamortuko eszena argitzen. Ene bihotzak gorespenak abesten zituen. Zein zoragarria eta ederra, Ahalmen Sortzaile Maitagarria, etengabe jarduten zuena, gugan, gure bitartez, eta guretzat!

### **MIRAGARRIA DA GERO, KREAZIOA!**

**Oihu egin nuen ozenki: "DEN DENAREN ITURRIA zara ZU; bi gauzak zara: sortzailea, eta baita ere -sortutakoaren bidez eta sortutakoaren baitan- manifestatua: unibertso osoan, Zeu Zaren ZERUKO BIZIAREN (Ahalmen Sortzailearen Kontzientziaren) betiko amaigabetasunetik ez dago ezer berezia.** Gizakia zergatik da, orduan, hain bekataria? Eta jendeak zergatik pairatzen ditu gaixotasuna, miseria eta pobrezia? Esadazu, maitagarri hori, **'Aita' Ahalmen Sortzaile Amultsua**, guztiz saminduta egon naizelako beren bizitza miserableekin".

Gero izaki bizidun guztien 'lur kondizioaren' errealitatea erakutsi zidan.

Sekulako zirrara nabaritu nuen, zeren eta azkenik ulertuko nuen halako **Zeruko Ahalmen Sortzaileak** zergatik utz zezakeen bere kreazioa miseria hori pairatzen.

Zera erakutsi zidan: Izaki bizidun bakoitzak kreazioan, osasunez distiratsu, zainduta, elikatuta, babestuta eta osatuta egon behar duela, eta baita bakea eta ugaritasuna bermatuta ere; batak besteari maitasuna baino eskaintzen ez dioten 'izakiek' ordenatutako gizarte baten barnean aurrera eginez.

**(Hala eta guztiz ere, sortzearen unean banakotasuna bermatzen zuten OINARRIZKO BI BULKADA agertu ziren, eta horiek kontrolatzen zuten gizakiaren kontzientzia.)**

BULKADA horiek zehatz mehatz azaldu zitzaizkidan, baina ezagutza hori geroko Gutun baterako gordeko dugu, eta orduan hobeto ulertu ahal izango duzu.....

Honako ikuskizun bizi hau erakutsi zitzaidan.

**Lehenengo eta behin, haur jaioberri bat ikusi nuen 'argia' bezala, 'Ahalmen Sortzailearen' forma bizi bat, alegia.**

Haurtxoa hazi ahala, haurtzarora eta gero helduarora arte, ikusi nuen **'Ahalmen Sortzailearen' ARGIA**

hutsa pixkanaka ilundu egiten zela pertsonaren baitan; harik eta zeharo desagertu arte, kate eta lotura-geruza lodi batek eraginda. Nik ikusitakoaren esanahia eskatu nuen, eta ulerkuntza argia heldu zen nire gogamenera, zeina honelaxe esan litekeen:

**Jaiotzetik heriotzara arte, jendeak uste du dituen bost zentzumenek, -ikusmena, entzumena, ukimena, usainmena, eta dastamena- gobernatzan dutela norbere errealitatea eta inguruko unibertsoarena. Beraz, gogamenaren ahalmena zuzenean ZERUKO AHALMEN SORTZAILETIK jasotzen dutenez gero, AHALMEN HORI guztia *sineskeren arabera* etortzen zaie.**

**Lotura bakoitzak** pertsona baten ohiko pentsamenduak adierazten ditu, gainontzeko pertsoneri eta gertaerei ematen dizkien erantzunak, aurreiritziak, gorrotoak, etsakeria, kezak, eta penak. Horiek guztiek lotu egiten dute pertsona, eta eragotzi egiten diote barne-ikuspenaren ARGIA sartzea, Ahalmen Sortzailetik datorrena. Eta horrelaxe, jakin gabe, iluntasunean sartzen da. Berak uste du, hazten eta heltzen ari dela munduko bideetan, eta horrek aurrera egiten –arrakasta izaten- utziko diola; horixe baita pertsona gehienek helburua lurrean.

Izatez, munduko jardueretan zenbat eta helduago eta ohituago egon, orduan eta gehiago estutzen dute kateek eta loturek 'ATXIKIDURA / ARBUIOEN' BULKADA BIKIEN menpean. Areago, kate bakoitza, gezurrezko desio egoistek, zekenkeriek, erasoek, bortizkeriek eta bortxaketek elikatzen dute. Kate horiek oso astunak dira bere inguruan eta psikea zamutzen diote. Pertsonaren psikea bere izatearen sakonean dagoen kontzientzia sortzailearen ahalmena da. Kateek eta loturek, urteak igaro ahala, gero eta estuago lotuko dute; harik eta bere buruari zer egiten ari zaion jabetu arte, eta harik eta egin dituen lotura eta kate bakoitzagatik damutu, eta min egin dienekin bakeak egin arte.

Ikuspen horrekin Existentiaren oso alde edo aspektu baliotsua ulertu nuen. Gizakia bere baitan bizitza ederra eraikitzeko ahalmen guztiarekin jaiotzen da, baina berak bere desio eta gorroto egoistei leku ematean, gabezia handiko espetze bat sortzen du bere buruarentzat, eta espetze horretatik ez dago ihes egiterik, harik eta **EXISTENTZIAREN EGIATZ** jabetu arte.

Existentzia gogorraren arazo guztiak gizakiaren prozesu mentalen barruan daude!

Soilik, jendearen 'kontzientzia-formek', pentsamenduek, hitzek, sentimenduek, eta ekintzek sortu zuten hesi dentsu bat bere kontzientiaren eta Unibertsoko Kontzientzia Sortzailearen artean; zeinak unibertsoa barneratzen baitu hosto, zuhaitz, intsektu, animalia eta gizaki bakoitzarengan.

EXISTENTZIAREN LEGEAK ere erakutsi zitzaizkidan. Lege horiek kontrolatzen dituzte inguruabar berriak eta ingurunea, harremanak, arrakasta edo porrota, eta aurrerakundea edo pobrezia sortzeko giza gaitasuna.

Gizakiak -ona edo txarra- dela **SINESTEN DUEN HORI** sakonean, horixe bihurtzen da.

Besteek egingo diotenaren **BELDUR** bada, horrelaxe izango da. Gizakiak, besteek berari egitea **ESPERO** duena euri egin behar die lehendabizi, zeren horrela 'kontzientzia-patroi' bat sortzen ari baita; eta gizakiak, besteak bedekatu ahala 'kontzientzia-patroi' hori berari itzuliko zaio bedekatzera.

Bera **IKARATZEN** duen gaixotasunaren biktima izango da, gutxien espermentatu nahi duen

gauzaren 'kontzientzia-patroia' sortzeagatik.

Gizakiari, gogamenetik eta bihotzetik igortzen duena bere garaian itzuliko zaio modu batera edo bestera; baina gogora ezazu oso emozio handiko pentsamenduak 'kontzientzia-haziak' direla, gizakiaren kontzientziaren inguruan bertan ereindakoak. Horiek hazi egingo dira, eta ereindakoa bezalako uzta emango dute.

**Horiek aukeramenaren fruituak dira.**

**Ez dago ihes egiterik gizakiak pentsatu, esan, edo egiten duenetik, Zeruko Kontzientzia Sortzailearen Ahalmenetik jaioa delako, eta era berean gizakiak bere irudimenarekin sortzen duelako.**

Ongizatea beren buruarentzat desiratzen duten pertsonak, gainerakoei eman behar diete aurrena.

Pertsona horien existentzia bedeinkapena izan bedi gainerako guztientzat.

**Aipatutako pertsonak beste guztiakin harmonian daudenean, orduan unibertsoaren kontzientzia sortzailearen ahalmenarekin perfektuki harmonizatuta daude,**

eta **Aitaren** 'izaeraren' uholdera ekarriak dira; zeina, hazkundera, babesa, elikagaia (fisikoa, mentala eta espirituala), sendatzea eta beharren asetasuna baita, guztia Lege eta Orden sistema baten barnean.

**Nola deskriba diezazuket ene barne distira, ene argi transzendentala, alaitasun distira, eta maitasun-sentimendu indartsuak, zeintzuek ene izate osoa bizitasunez jabetu eta bete zuten, harik eta nire gogamen eta bihotz barruko presioagatik oihukatu arte?**

**Hain zen indartsua ezen ematen baitzuen ene forma fisikoa erabat disolbatuko zuela. Errealitatearen ulerkuntza goren eta sublime hori guztia jasotzean, hots, gure izatearen Iturria eta sortutakoaren beraren -eta gizateriaren- egiazko izaera; espirituan igoarazia izan nintzen eta nire gorputza airea bezain arina egin zen.**

Une hartan, **Zeruko Ahalmen Sortzailearen** baitan igoa nintzelarik, benetan ia 'Zeruko Pertsona' bihurtu nintzen ni neure baitan '**Aitaren Ahalmen Sortzailearen Izaeraren**' maila altu bat esperimentatuz, eta haren bultzada eta ardura amultsua sentituz gizateria guztiarenganantz. Horrexegatik, gero esan nezakeen benetan: '**Soilik neuk ezagutu eta ikusi dut Aita**'.

Une hartan gogo bizia nuen gero, irakasteko, sendatzeko, bihotza emateko, igoarazteko, elikatzeke, eta, jendearen mina eta miseria leuntzeko!

'Jainko mendekari' mitiko baten beldurretik askatu nahi nituen!

Jendeari egia kontatzera itzuliko nintzenean, behar bakoitza hornitzen duen '**Aitaren Ahalmen Sortzailearen Errealitatea**' -**MAITASUN PERFEKTUA**- azpimarratu egingo nuen. Egin behar zuten bakarra zera zen: 'eskatu, bilatu, eta deitu' – eta orduan edozein tankeratako behar guztiak aseak izango zitzaizkien.

Jendeak jakin behar zuen sufrimenduaren berrerospena bere esku zegoela, baldin eta soilik 'IZATE' manifestatuaren BULKADA BIKIEN gogamena eta bihotza arazteko egin behar ziren urratsak egiten bazituzten. Poz handiz kontatuko nien horren guztiaren 'berri ona'!

'Hori nahiko erreza izango duk', pentsatu nuen; ulertzea eta autokontrola baino ez ziren behar.

(-Zuen bibrazioen aldera jaitsi naiz basamortuan egon nintzen bitartean izandako gogamen-egoeraz hitz egiteko. Neurrigabeko laguntza izango da zure ulermenerako, une hartako nire 'kontzientzia-egoeran' sartzen saiatzen bazara. Gauza asko argi eta garbi geratuko dira zuretzat: sendatze lanak eta 'ur gainean ibiltzearena' esate baterako. **Aitaren Ahalmen Sortzaileaz** izan nuen ulerkuntza berriaren ondorio naturala bezala ikusiko dira gauza horiek.

Mateo eta Marcoren ebanjelioak irakurtzen badituzu, beren idatziek esanahi berria izango dute zuretzat-)

Nire iluminazio edo goi-argitzearen azken orduetara itzuliz, - basamortuan bertan egon nintzen, honako ulerkuntza honetaz argi eta garbi jabeturik: gizakiak berak (errurik gabe) sortzen du **Aitaren Ahalmen Sortzailearekin** bat egiten uzten ez dion hesia. Eta horretan nengoela, lehenbailehen itzuli nahi nuen irakastera, sendatzera, bihotz ematera, eta hainbeste pena ematen zidatenen malkoak xurgatzera.

Hala ere, toki santu hori uzteko uzkur egon nintzen, espirituan goi-argitua eta eraldatua izan nintzen lekua, alegia.

Bestalde, hura zen, hura, espero nuen etorkizun zoragarria!

Herri eta hiri guztietatik igaroko nintzen 'BERRI ONA' edo 'Zeruko Erresuma' kontatuz topatuko nituen guztiei. 'Zeruko Erresuma' hori, non gaixotasuna desagertu egiten den eta behar guztiak asetzen diren, beren baitan zegoen. Banekielako Aita eta biok BAT ginela, -nire gogamena, pentsamendu eta ideia zahar orotik araztua izan baitzen-, gaixotasunen sendatzea ekarriko nien eta euren pobrezia nola arindu erakutsiko nien.

**AITA KONTZIENTZIA** nire baitan iluntzen hasi zenean, eta pixkanaka giza kontzientziara itzuli nintzenean, konturatu nintzen gose handia nuela, eta giza pentsamendua eta baldintzapena itzuli zirela.

Sei asteetako esperientzien aurrean izandako erreakzioak aldatzen hasi ziren. 'Neuri' buruz eta neure desioei buruz neukan giza ezagutza arrunta ene pentsamenduen jabe egin zen.

"Ba, bai! -pozez zoratzen esan nuen- gauzarik harrigarriena eta ustegabekorik handiena gertatu zaidak".

"Beste edozein gizakiri eman ez zaion haratagoko ezagutza eman zidatek niri."

Pozez beteta nengoan, azkenik, Judutar Ortodoxo Tradizionalisten 'jainko' mendekariaren aurkako zalantza eta errebeldia justifikatuta geratzen zitzaidalako. Azken batean, neurea zen arrazoia!

Zeinek susmatuko zuen inoiz giza gogamena hain sortzaile handia izango zela, indar biziz sostengatutako pentsamendu edo irrika bat begibistako erresuman manifesta zitekeela pentsatzeko?

Moisesek horretaz zerbait jakingo zuela konturatu nintzen, zeren gauza arraro batzuk egin baitzituen, isrraeldarrek behar handia izan zutenean. Buruzagi izatera heldu zen, eta aurrez Egipton esklabo egon ziren isrraeldarren patua aldatu zuen.

Orduan, itzuli eta herria bere Maisuen kontrol estutik askatzeko gaitasuna neukan nik. Nire goseagatiko minak handitu egin ziren. Otu zitzaidan harriak ogi bihur nitzakeela jateko gogo asezteko; zeren gogoan baineukan Aita Sortzailearen Ahalmenak lan egiten zuela nire gogamenaren bitartez, eta beraz, unibertsoan dena nire agindupean egongo zela.

Harriak ogi bihurtuko zituen 'hitza' ahoskatzekotan nengoela, zerbaitek gogor geldiarazi ninduen.

Oso indartsu etorri zitzaidan **Aitaren Kontzientzia Sortzailea**, babes perfektua, elikadura eta beharren asetasuna zela, eta Aitari eskatuz gero, nire gosea asea geratuko zela. Zera ulertu nuen: 'ni' gizaki txiki

honek nire beharretarako arrazoi egoistengatik 'Ahalmen Sortzailea' erabiltzen bazuen, **Aitaren Kontzientzia Sortzailearen** eta neure artean hesi bat jasoko zuela; eta ikasi berria nuen guztia di-da batean desager zitekeela. Horrek beldurtu egin ninduen eta agudo eskatu nion **Aita Sortzailearen Ahalmenari** indar berria emateko, bueltan moradetara eta Nazaretera itzultzen laguntzeko. **Gosea bartzeko ere eskatu nuen, niretzat izan zitekeen modurik egokienean.**

Gosearen minak berehala baretu ziren, eta energia-bultzada bat sentitu nuen gorputz osoan jariatuz. Beraz, ikusi, entzun eta ulertutako guztia '**Errealitatea**' zela egiaztatu ahal izan nuen; eta ez, basamortuan baraurik eta bakarrik egon bitartean sortutako irudipen harroa.

Energia berriak bizkorrago ibilarazi ninduen bide malkartsuetan zehar basamortutik ateratzean. Bidean ondo jantzitako gizon atsegin eta aurpegi gozoko batekin egin nuen topo. Adeitasunez agurtu ninduen ardura erakutsiaz nire itxura zakar, axolagabe eta narratsa ikustean.

Alaiki arroka batean eseriarazi ninduen, eta, ogia eta okel ederra erdibanatu zituen nirekin. Zergatik nengoen hain leku bakartian eta nondik nentorren galdetu zidan. Ene galderak erantzunez, soilik irribarre egin zuen; eta ez zirudien batere harrিতua, basamortuan -denboraren zentzua galtzeraino- hainbeste egun eman nituela esan nionean. Azaldu nion nola izan nintzen iluminatua edo goi-argitua **Munduaren Sortzailearen** benetako izaeraz, eta **Existenziaren berezko Legeak** irakatsi zizkidatela.

Soil-soilik irribarre egin zuen eta baietsi zuen. 'Herrira itzuliko naiz ikasitako guztia irakastera' esan nuen alegera. 'Zeren osatu, eta gaixotasun eta pena guztietatik askatu ahal izango baititut'. Kanpotarrak zera erantzun zuen tristeki: 'Milurte asko beharko du'.

Bere sinesmen eza gaitzeztekotan nengoela, konturatu nintzen alde eginda zegoela.

Zeruko mezulari bat ogia eta **okel** gozoarekin laguntzera etorri zitzaidala jakin nuen orduan – eta gupida handiz ohartarazi zidan nire misioa -ez hain xinplea- izan zitekeela, nik gogo biziz jardun arren. Bere oharrak gogogabetu egin ninduen. Nire irrikak behea jo zuen. Lehen herrixkarako bideak bukaezina zirudien. Nola gero, giza pentsamenduan izandako aldaketa batek sortzen duen adore aldaketa! Niri irakatsitako guztiaren egia berriro egiazta nezakeela ulertu nuen; amildegi erpin batetik jauzi egiteak bidea asko laburtuko zidala. Hori egitekotan nenbilela, indarrez jabetu nintzen nire iluminazio aldia edo argialdia egiazkoa izan ote zen 'egiaztatzen' ahalegintzen ari nintzela. Horrelako egiaztapenik behar banuen, orduan zalantza neukan eta seguraski hil egingo nintzen. Gainera, edozein kasutan ere, pentsamenduak **KONTZIENZIA – SORTZAILEA – AITARI** igo ahal nizkiola irakatsi zidaten, eta edozein arazorentzako konponbide bat eskatu. Zein agudo ahazten nuen **Egia!**

**Beraz, sugar handiz barkamena eskatuz otoitz egin nuen, nire ahuldadeagatik eta gauzak egiteko modua bilatuz fantasiei amore eman nielako.**

Berriz ere, erantzuna indarberrituz heldu zen -eta ziurtasun handiagoz nire pausuan- lur harritsuetatik igo bitartean. Bide gehiago denbora txikiagoan egiten nuen, hain bizkor ezen denboraren araupetik atera eta dimentsio arinago batean bainengoen, non giza esperientzia goretsia izan zen energiaren higitze nekagarriaren esklabotasun astunaren gainetik. Oinez ibiltzea erreza bezain eragingarria zen. Bizi ugariago baten gakoa aurkitu izanaren poza irrikaz erakutsi nuen.

Handik gutxira, gusturago nengoela, nire gogamena noraezean ibiltzen hasi zen; eta, kanpotarrarekin

izandako solasaldian eta bere nireganako adeitasunean pentsatu nuen. Baina, bere oharra ere gogoratu nuen, eta berriz ere nire aurreko izaera berrindartuz errebeldia sakona sentitu nuen, nire lana nola joango zen bazekiela harro esan baitzidan berak. Nire etorkizunaz ezer ez nekiela erabaki nuen, eta bere oharra baztertu egin nuen burutik.

‘Zeren, -pentsatu nuen-, inongo gizonak inoiz lortu ez dituen gauzak egin bainitzakek nire ezagutzarekin. Bizitza zail batean borroka egin beharrean, ondasunak bil nitzakek erreztasunez, edonondik jarraitzaileak ekarri, eta euren bizitzak eramangarriagoak egiteko ezagutza konpartitu. Min eta sufrimendu oro desegin nezakek’.

Hain erraz bisita nitzakeen leku asko begiratu bitartean, sentitu nuen lur azalera igurzten ari nintzela eta mendi malkartsu baten gailurrik goreneraino igotzen ari nintzela; mendi horren ostean, behean, landa ikusten zen.

Han, dena zegoen nire oinpean. Nik aurrez izandako gogo bizia itzultzen somatu nuen. Zeren oso erreza izango baitzen jendea elkartzea eta ezagutza beraiekin konpartitzea. Ahaltsua izango nintzen; baita ospetsua ere; gizateria bere gaixotasun eta pena guztietatik askatuko zuen gizona bezala. Beren mirespena eta begirunea lortuko nituen, eta harrez gero ez ninduten berriz gogoratuko gizaseme alfer eta esteusa bezala.

Sekulako astindu batez, arestian, ordu batzuk lehenago irakatsi zidaten guztia nire gogamenera itzuli zen indar eta argitasun handiz.

### **Ez al zidaten irakatsi aurrera egiteko modu bakarra zela neure borondatea uztea eta ‘AITAGANA’ itzutzea, nire enpresa guztientzat laguntza eskatuz?**

Gero gogoratu nuen keazioak betetzeko asmo propioak zituela. Indibidualizazio prozesuak ‘tira eta aska’ edo ‘har eta eman’ sortu zuen giza jokabidean. Hala ere, ez al zen larritasuna, BIZITZEKO modu hobekak bilatzera bultzatzen zuena, benetako zorientasuna aurkitzeko asmoz? Gizateriaren gaitzek, ulertu nuen, existentziaren giza eskeman zeukaten lekua.

### **Zuzena al zen nik informazio pribilegiatua ekartzea ‘indibidualizazio prozesuaren’ eraginak ezabatzeko?**

Konturatu nintzen (niaren) nire banakotasunaren erdigunetik pentsatzen nuela, eta ‘egoaren’ bulkadak gizateriaren eta **Aitaren Kontzientzia Sortzailearen** artean hesiak altxatzen zituela. Beraz, giza-irrikaren ene puntu zentrala konkistatu beharko nuen **Aitarekin** harmonian bizi nahi banuen. Eta horrelaxe, nire bidea egin nuen gerta zitekeenaz pentsatuz eta nire gizatasuna gobernatzen zuten bulkadak hobeto nola gaindi nitzakeen hausnartuz, AITA-KONTZIENTZIAREN Jarioan geratzeko asmoz; hortik aterako baintuen inspirazioa, orientazioa, arazoentzako konponbideak, elikadura, osasuna eta eguneroko babesa. Izan ere, konturatu nintzen ‘Kontzientzia Aitaren eguneroko jarioaren’ barnean geratzen nintzen bitartean, ezin zitzaidala inongo minik inguratu, eta gainera nire behar bakoitza asetua izango zela. Eta are gehiago:

Aita Kontzientziak nire bitartez lan eginez, jende etsia osatzeko eta sendotzeko behar zen guztia egingo zuela.

Existentziaren errealitate latzaren aurka neukan errebeldia une oro gainditu behar nuen; eta ‘barneko ahotsa’ aditu, eta Aitaren ‘Goreneko Nahiaren’ esanetara jarri. ‘Goreneko Nahi’ hori ‘Maitasun Perfektua’

zen, nire goreneco ontasuna sustatzera zuzendua erabat. Konturatu nintzen bururik gabe jokatzea izango zela neure borondatearen bideari jarraitzea, ordura arte nire jokabidea diktatu zuen bideari, alegia.

Orduan jendeari parabolaren bidez hitz egiteko inspiratuta geratu nintzen. Ezagutza jasotzeko prest zeudenek ulertuko zuten, eta erabili ere erabiliko zuten.

Baina gertatu zen bezala, ezta nire dizipuluak ere ezin izan ziren nahikoa askatu juduen doktrinatik; ez kontzientziaren printzipioa jakin ahal izateko, ezta kreazioaren barruko '**Zeruko Ahalmen Sortzailearen**' jardura ulertu ahal izateko ere. (Orain arte misterio bat izaten jarraitzen du guztientzat, espiritualki goi-argiturik daudenentzat izan ezik).

Giza gogamenak ez du gaitasunik goi-argitze edo iluminazioari buruzko hitz espiritualak guztiz berehala ulertzeko. Horrexegatik, **Gutun** hauek astiro irakurri behar dira, eta ondo ulertu ahal izateko meditazio eta otoitz asko egin.

Gogoratu! (Sineskerak, aurreiritziak, ezinikusiak, handinahikeriak, eta 'EGOAREN' alferreko bulkadak alde batera utziz), '**ume**' bihurtzen ez bazara, mirespenez eta sinesmen osoz beteriko gogamenarekin, orri hauek ezingo dituzu behar bezala zeureganatu.

Gogora ezazu '**ume**' bihurtzeko, igarotako kondizionamendu edo baldintzapen mental guztia kentzen ahaleginak egin behar direla. Mental, emozional edo fisikoki sufritzen baduzu, zergatik da? Ba, zure sineskera zintzoenak ez zaituztelako lagundu, ez dizutelako ongizatea sustatu.

Bada ordua zure **GOGAMEN ESKEMA** aztertzeko. Pozik al zaude berarekin?

Aukera dezakezu; eta aukeratzen duzun bitartean, '**Aitari**' dei diezaiokezu aldaketak egiten laguntzeko; eta laguntza eman egingo zaizu ziurtasun osoz, zalantzarik ez baduzu.

Beraz, hurrengo orrialdeok irakurtzen eta zeureganatzen segitzeko aholkua ematen dizut.

Zure 'gogamen eskemaren' indarrak konbentzitu nahi zaitut, -zeina zure kontzientzia eta azpikontzientziaren programazio osoa baita.

Argi eta garbi ulertu behar duzu giza gogamen eskema horretako ezerk ez duela jatorria dimentsio espiritualean.

Erabat lurrekoa da gogamenaren eskema hori, eta, seguraski, ideia mitikoz, aurreiritziz, bururatze txarrez, ezinikusiz, igarotako zaurien oroitzapen ezkutuez, eta zure bizimoduaren gora beherekin tratatzen duten ohiko patroiez betetakoa da. Zure giza 'gogamen eskemak' (edozein erlijio ideia eta sineskera barne) dena determinatzen du: zure mundua, harremanak, esperientziak, arrakastak, huts egiteak, zoriona, eta miseria). Zure gaixotasun eta istripuen arduraduna ere bada. Halabeharrez ez da ezer gertatzen. Zure kontzientziaren barne zuntzetatik, dena dago ehunduta: pentsamenduak, esperantzak, sinesmenak bizitzan, patua edo 'Jainkoa'. Zeuk marraztutako mundu batean bizi zara. Horregatik, ingurugiro berean hazitako haurrak ezberdinak izaten dira. Nork bere gogamen-eskema dauka, berezko nortasunaren joeren arabera sortutakoa.

Jaiotzean, garatzeko gogamen-eskemarik izango ez bazenu, estatua bat bezain inkontzientea izango zinateke: sentimentu, erantzun eta pentsamendurik gabe. Oharkabeki begiratuko zenioke munduari, eta,

nahiz eta zure inguruan jarduera asko egon, ezerk ez lioke eragingo zure kontzientziari, zure baitan ez litzatekeelako erreakziorik. Ezerk ez zintuzke, ez triste, ez zoriontsu egingo, hurbil bonba batek eztanda egin arren.

‘Gogamen-eskemarik’ gabe ez da bizitzarik izaten, ez garapenik, ez gaiztakeriarik ez ontasunik. Zure ‘gogamen-eskema’ MOTAK, bizitza kalitatea zehazten dizu. Horixe duzu Existentziaren lehendabiziko Egia. Zeuk erabat ezagutu eta ulertu behar duzuna.

Areago, ‘gogamen-eskema’ zoazen tokira zoazela daramazu, bizi zaren artean.

Hortik ez dago ihes egiterik, eta egunez egun, iraganean bizi izandako existentzia mota sortuko dizu horrek.

Gizaki askok bizitza osoa ematen dute dohakabeak direla sinetsiz. Jendea zekena, ez oso atsegina, eta bihozgabea izan zaiela uste dute, eta bizitza erabat zoritxarrekoa egin diela. Uste dute ‘besteak’ aurka dituztela eta oztopoak jartzen dizkietela, baina gizakiak, eurak, probokazioetan erabat inozenteak direla. Aitzitik, besteek ez dute inolako errurik. Pertsonaren gogamen-eskema da egoera negatiboak ekartzen dituen.

Jende askok sufritzen dituen penen arduradun bakarra bera delako ideiatik ihes egiten du. Batzuentzat zailagoa da beren ezgaitasunei aurre egitea, barne-indarra duten eta aurrez aurre beren buruari zintzoki begiratzeko konfidantza duten beste batzuentzat baino.

Otoitz zintzoak ‘Aitaren Kontzientzia Sortzailea’ gogamenerantz erakartzen du, poliki poliki, ixilpean; eta giza kontzientzia garbitzen du bilatzailea eroso sentitzen ez den guzti horretatik. Nahitaez, mailakako araztea eta barne-garapen prozesua da.

### **PATROI EMOZIONALAK**

Patroi emozionalek, gogamen-eskemak bezalaxe, zure ongizate-multzoari min eman edo kalte egin diezaiokete. Zure gogamen-eskema eta patroi emozionalak tresna sortzaileak dira. Horiek, batera, behar den ingurua sortzen dute zure jabego, gertakari, eta etorkizuneko inguruabarretan.

TRESNA SORTZAILE horiek zure bizitza lantzen dute, zure asmoa izan edo ez.

Askoz zailagoa da zure jarrera emozionalak (hain sakonki errotuak) -kontzienteak edo inkontzienteak- aurkitzea, zure gogamenaren baldintzapena aitortzea baino.

Zu, patroi emozional negatiboek menperatuta egon zaitezke eta beraietaz batere ohartu gabe egon; zeren, eguneroko errutinatik sortzen diren unez uneko emozioek estalita baitaude.

Zure patroi emozionalak zein diren jakiteko, egizkiozu zeure buruari hurrengo lerroetan agertzen diren galderak, eta erantzutean izan zaitez guztiz zintzoa. Patroi emozionalen egiatik ezkututzen saiatzea engainatzea baino ez da, eta gozatu beharko zenukeen existentzia-egoera zoriontsuari uko egitea ere bada.

BIZIA dela eta, nola sentitzen zara benetan? Nik nahi dut zuk zeure buruari sentimenduzko gutun samurra eta gupidatsua idaztea, hurrengo galdera hauek erantzutean zehazki nola sentitzen zaren esanez.

Pozik al zaude bizirik egoteaz, ala nahiago zenuke bizitzeari utzi? Zure erantzuna bigarrena baldin bada, orduan existentziarekiko jokabide negatiboa daukazu eta zeure buruarekin gerran zabilta oso maila



sakon batean. Badakizu, kontzienteki, zure eguneroko bizitzan aurrera egin behar duzula; baina, zure mailarik sakonenean uztea gustatuko litzaizuke. Barruko gerrak ez dizu erakartzen uzten patroi emozional positibo batekin esperimeta zenezakeen guztia.

Ahaideenganako zer sentimendu duzu? Ba al duzu ezkutuko etsaitasunik, aitortu nahi ez duzunik, edo existitzen zela ez zenekienik?

Nola sentitzen zara zure lanean, lankideekin, jolasaldian, beste arrazekiko harremanetan eta abar?

Idatzi zuri buruzko aurkikuntzak, eta gorde itzazu giltzapean.

Zeuretzat egingo duzun lan hori zeuretzat baino ez da izango, zure onerako soilik. Ez duzu egingo pertsona hobea izateko, edo 'Jainkoari' atsegina emateko edo besteen onarpena lortzeko. Barne-trabak kentzeko egingo duzu; izan ere, traba horiek zure garapen espirituala eta betiko zorientasuna oztopatzen dizkizute.

**GUTUN hauek egunero irakurriz zure bizitza aldatzea erabakitzen baduzu, zure gutuna –data eta guzti- toki seguru batean jartzea aholkatzen dizut. Urtebete barru irakur ezazu berriz eta alai zaitez zure Gogamen-Eskemaren barrenean izango diren aldaketa handien aurrean; zure inguruabarretan ere aldaketak ikusiko dituzu.**

Gogora ezazu zure Sortzailearengan zeharo fokalizatutako otoitzak eta meditazioak indar berria eta goi-argitzea edo iluminazioa ekarriko dizkizutela, eta horiek, batera, sentimentuak eta ingurua aldatuko dizkizutela.

Otoitz egiten duzunean, -ez zentratu inoiz arazoetan- eskatu beti irtenbide zuzena. Utzizu Sortzaileari irtenbide egokiak ekartzen, hots, zure giza-gogamenak ezingo lukeena egiten.

Adibidez, -ez esan inoiz zure 'Aita' Sortzaileari zer gaixorik zauden. Zure egoeran, berehala jasotzen ari zaren Ahalmenean zentra zaitez (nahiz eta zure kontzientzia gizatasunez baldarregi egon daitekeen sentitzeko) eta eman eskerrak suspertze bizkorragatik eta sinets ezazu. 'Eskerrak ematean' zera ari zara onartzen, aitortzen, sinesten, eta zeure kontzientzian grabatzen: otoitza, 'Aitaren Kontzientzia Maitagarriaren' baitan dagoela eta bere garaian agerian manifestatzeko prozesatzen ari dela. Palestinan izan nintzenean, bete aurretik etengabe eskertzen nuen lan guztiagatik.

Errezatu ondoren, ez irten logelatik zein gaixorik zauden esatera, edo egoera pertsonala edo nazionala zein gaizki dagoen kontatzera. Aitari arazoak, finantzak edo osasun txarra konpontzeko eskatu badiozu; Aita Sortzailea iraintzea izango da gertatutako egoera negatiboez berriz hitz egitea.

Berehala ari zara desegiten, Aita Sortzailea egiten ari den lana.

Zure gogamenean, otoitz egin ondoren, baldintza zahar horiek ez badira jada igarotako baldintza negatibo bihurtu, ekin otoitzari harik eta horiek gogamenetik aldentu arte, eta benetan une horretantxe dena Jainkoaren eran konpontzen ari dela sinetsi ahal izan arte.

Ekin behin eta berriro eskerrak eman, eskatutako onura guztiengatik. Ziurtasun osoz, materializatu egingo dira eta.

Gaur zure munduan badira milaka gizaki etengabe Unibertsoko Aita Sortzailearen menpe daudenak behar bakoitza asetzeko, era guztietako bedeinkazioen lekuko izanik euren bizitzetan.

Abandona itzazu beldurrak, ez dizute ezertarako balio izan. Orain itzul zaitez Unibertsoko Aita

Sortzailearengana, **ZURE IZATEREN ITURRIRA**, **BERA** baita sortzea, hazkundera, garapena, elikadura, birsortzea, osatzea, behar bakoitzaren asetasuna, **BABESA**; dena **LEGE ESPIRITUALEN ETA ORDENAREN** sistema baten barruan.

Jabe zaitetz lan zoragarri hori guztia eraikitzailea, onuragarria eta ordenatua dela.

Benetan, **GOGAMEN MAISU** bat duzu, zuri, zure familiari eta zure bizimoduari laguntzen diena. Izan **KONFIDANTZA BERARENGAN**. Zure pentsatzeko moduak ez dezala honda 'Zeruko Operazio Sortzailea'. Batez ere, gogora ezazu **Nik, KRISTOK**, arrazoi bakar batengatik egin nituela deitutako mirariak; 'Jainkoaren Erresuma' nire baitan zegoela konturatu nintzelako, eta nire baitan eta bitartez lan egiten zuen **Aita Sortzailearengan** beti konfidantza izaten nuelako.

Gogoratu zuk kontzientzia indibiduala duzula, soilik '**Aitaren Kontzientzia Sortzailearengandik**' hartu duzulako.

Zure kontzientzia pertsonala negatibitatez garbiturik dagoenean, deskubrituko duzu zeu ere 'Aitaren Kontzientzia Sortzailearen' bitartekari araztu bihurtu zarela. Hazkunderaren, elikaduraren, osatzearen, elikagaiaren, babesaren, eta beharren asetasunaren iturri alai ere izango zara, Lege eta Orden sistema baten barruan, ongi antolatua zure ingurura sartzen diren guztientzat. Eragin ahaltsu hori zure gogamenaren bidez hedatuko da zure senitarteko, adiskide eta auzolagunenganantz, lur, abere, eta uztetarantz.

Laborategi batean elektrizitateak zure eskuetatik pasatzean Bunsen metxero bat piztuko duen bezala, horrelaxe zure **BIZI INDARRAREN** irradiazioek mesede egingo diete zure eraginpeko inguruarekin bat egiten duten guztiei.

Hori izan zen kreazioaren atzean egon zen asmoa. Asmoa zera zen: zuk gogamenaren eta bihotzaren bidez **Unibertsoko Kontzientzia Sortzailea adieraztea. Ni, Kristo**, une honetan etorri naiz zuri nola egin irakasteko.

Lehendabizi, gogoan har ezazu nire 'kontzientzia egoera', deitutako mirariak egin nituenean.

Ez nuen otoitz zehatzik egin. Nire kontzientziaren bitartez irradiatzen ari zen **Aita Sortzaileari** eskatu baino ez nion egin, behar zen edozerengatik.

Biziki konturatu nintzen, eta '**Aitaren Kontzientzia Sortzailea**' operatzen ikudikatu nuen indar dinamiko bat bezala. Indar hori mundu ikusgai manifestatu zen: sormen bezala, diseinu adimentsu bezala, hazkunde bezala, elikadura eta elikagai bezala, babes bezala, osatze bezala, birsortze bezala, behar bakoitzaren asetasun bezala; guztia Lege eta Orden sistema baten barruan.

Zera jakin nuen: '**Aitaren Kontzientzia Sortzaileak Bere Izaera** guztia irradiatuko zuela ene kontzientziaren bidez, sendatzea eskatuko zidatenen eta zinez jaso zezaketela sinesten zutenen kontzientzian sartzeko.

Baita ere, banekien 'sendatzean sinesmenik eta esperantzarik' izan ezik, kontzientzia negatibo mota horrek ez ziola utziko **Aitaren Kontzientziaren IZAERARI** eragiten, eta ez zela osatuko.

Zera ere ulertu nuen: **AITAREN KONTZIENTZIA SORTZAILEAK** mundu ikusgaiaren barnean egindako sendatze-lana, benetan, lurrean **manifestaturiko Maitasuna** zela.

Ulertu ere ulertu nuen, **Aitaren Kontzientzia Sortzaileak** mundu ikusgaiaren barnean egindako lan guztia, benetan, **Maitasun** manifestatua zela, -eta eskerrak eman nituen.

Unibertsoko sustantzia guztia Kontzientzia Unibertsaletik zetorrela konturatu nintzen —eta-  
eskerrak eman nituen.

**Ziharduena 'Aitaren Kontzientzia Sortzailea'** zela ulertu nuen, eta **Bera** betikoa zela; eta ezerk, giza  
gogamena ez bazen, ezin ziola galarazi bere zeregina.

Beraz, giza sentimentu eta pentsamentuak burutik kendu nituen, eta jakin nuen '**Aita Maitagarriaren**'  
bitartekari perfektua nintzela, eta '**Aita Maitagarriaren**' nahi perfektua gauzatuko zela osatu beharrean  
zegoen pertsonarengan.

Kontuan hartzeko oharra: Jakin ere jakin nuen, pertsona haren kontzientzian elbarritasuna edo  
gaixotasuna sortzen zuena ezabatua izan zela momentuz gorputzetik. Orduan hauxe zen galdera: Bere  
ohiko 'kontzientziak' itzularaziko al zion gorputzetik Jainkoaren eran erradikatutako izaera? Osatutako  
pertsonari horregatik esaten nion: 'joan zaitez eta ez egin bekatu gehiago.'

**Bihotz bihotzez sinetsi eta jakin dezazun nahi dut, lurrean egon nintzenean nik izandako  
kontzientzia maila, aurreko ahapaldietan deskribatua, zure gogamenarekin eta bihotzarekin lortu  
behar duzun kontzientzia maila bera dela.**

Basmortuan izan nituen iluminazio esperientziek KONTZIENTZIA KRISTIKOA lortzeko gai egin ninduten  
neurri handi batean lurrean izan nintzen bitartean. Baina, zuk nire urratsetan aurrera egin dezakezu  
borondaterik baldin baduzu; eta ni zure esku izango naiz bidean laguntzeko, ziurtasun osoz.

Nire presentzia sentitu ahal duzu horretarako nahiko sentibera baldin bazara. Baina, aldi batez, ezer  
sentitzen ez baduzu, ez etsi; zeren eta kontzientzia aldatzeko lan egiten duzun bitartean, erabat seguru  
egon zaitezke nire **KONTZIENTZIA KRISTIKOAREKIN** harremanetan zaudela, eta gertatzen zaizun  
guztiaren jabe izango naizela.

**BADAKIZU** zure asmoa lurrean, kontzientzia espiritualean igotzea dela, gaur egun oztopatzen dizun  
gizatasun osoa gainditu arte; harik eta zeuk ere azkenean, elementuak kontrolatu eta maisu edo maistra  
egin ahal izan arte.

Jakizu **kontzientzia mundiala, Aitaren Kontzientzia Sortzailearekin** zeharo sentsibilitaturik egoten  
denean, gizakiaren ongizate perfektuaren aurkako guztia desagertu egingo dela. Ez da gehiago egongo,  
ez malariadun eltxorik, ez landarerik gabe utziko zaituen langostarik, ez muturreko klima egoerarik, ez  
infekziorik, ez birusik, ezta bizidunei arazoak sortzen dizkieten gainerako guztiak ere. Unibertsoaren  
babespean biziko zara. Zure kontzientzia perfektuki **Aita Maitasunarekin** bat eta harmonian egoten  
denean, -orduan Jainkoaren eran babestuta ere egongo zara, eta zeraren bitartekari bihurtuko zara:  
diseinu sortzailearen, hazkundearen, elikadura eta elikagaiaren, babesaren, sendatzearen eta  
birsortzearen bitartekari, baita behar guztien asetasunaren bitartekari, eta legearen eta ordenaren  
bitartekari ere.

**AITA MAITASUNA** arituko da zure gogamenean, bihotzean, gorputzean eta asuntoetan. **BERA** arituko  
da, zuk bere ahalmena zuzentzen diezun guztiengan.

**Kristoren gogo bizia da GUTUN hauek bizkor publikatuak eta banatuan izatea Egiaren bila  
dabiltzan pertsonen artean. Gutun hauetatik ezer aipatzen baduzu, mesedez, argi eta garbi aipa  
ezazu iturria.**